

Antonio Zavala

# FRANTZIAKO IRAULTZA ETA KONBENTZIOKO GERRA BERTSOTAN

---

Erri-literatura  
Auspoa Liburutegia

---

Bertsokak



**ETOR**

Re-2990

10632

# **FRANTZIA'KO IRAULTZA ETA KONBENTZIOKO GERRA BERTSOTAN**

Auspoa Liburutegia  
202

Antonio Zavala

**FRANTZIA'KO IRAULTZA ETA  
KONBENTZIOKO GERRA BERTSOTAN**  
(Bertsoak)

Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

**ETOR**

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR, S.A.  
Juan de Bilbao, 13. 20003 DONOSTIA

I.S.B.N. 84-85527-62-3

D. L.: NA. 1.574-1989

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

## ITZAUREA

XVIII'garren mendearen bukaeran ekaitz gogor batek astindu zituan Frantzia eta Europa'ko erreinu guztiak. Euskalerrria ere arrapatu zuan denborale nastu arek, naiz-ta Iparraldea eta Egoaldea oso era ezberdiñez zigortu.

Giroa aspalditxotik zakartzen ari bazan ere, ekaitz ori 1789'ko Maiatzaren 5'ean lertu zan, Paris'en *États Généraux* izeneko Biltzarra batzartu zanean, Frantzia'ko Iraultzari asiera emanik.

Iraultza orrek 1799'an izan zuan bukaera, Napoleon Bonaparte'k Frantzia'ko buruzagitza artu zuanean.

Gu ez goaz orduko kondaira idaztera. Lan ori eginda dago, eta bestek esandakoa errepikatu eta kopiatu besterik ez genduke egingo. Ez dijoa ortik gure bidea.

Gure euskera eta gure bertsolariak atzo goizekoak ez baitira, garai artan ere, irakurleak dakianez edo pentsa dezakenez, baziran bertsoak. Erdiak baiño geiago galduak izango dirala dudarik ez da. Baiña salbatu eta gure eskuetaraiño iritxitakoak, guk nai ainbeste ez baditugu ere, ez dira iñola ere utsaren urrengo.

Aintzakotzat ez dira artu, ordea, bear aiñean beintzat. Ori gertatzeko motiborik nagusiena zera da, gure iritzirako: bertso oiek oso sakabanatuta daudela; ez dirala bildu eta ez ditugula mordo batean ikusten. Batasuna indarra dala dion esaerak, arrazoi osoa du aldi ontan ere.

Bertso oiek alegiñean biltzen saiatu gera, beraz. Ta bilduma ori da gaur irakurleari eskeintzen dioguna.

Ala ere, oar bat egin bearrean arkitzen gera. Zoko-miran alegin guztiak egin baditugu ere, guk aztertu gabeko liburu, paper eta esku-idatzirik izango da noski an edo emen. Ta oietan gure gaurko gaiari dagozkion bertsoeren batzuk ere bai. Artxibo zaarren batetik edo gutxien uste dan tokitik denborarekin beste bertso eta berri batzuk agertuko dirala, guk beintzat ez degu dudarik egiten.

Edozein gai edo arazotan, izan ere, ez dago mundu ontan bilketa osoa egiterik. Aal dan osoenarekin konformatu bear degu. Ori egiten duanari geiago eskatzerik ez dago.

Bilduma au II Euskal Mundu Biltzarrerako presatatu nuan, argitaratzea gaur arte atzeratu bada ere. Itzaurrea ere orduan erantsi nion. Eta, ain zuzen, Biltzar artan eman zuan Patri Urkizu'k Baiona'ko Euskal Erakustegiko liburutegian azaldutako esku-idatzi baten berri. Beraren izena: *Recueil de quelques pièces de vers anciens et nouveaux, 1798*. Euskeraz: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*.

Izenburu orrekin liburu batean argitaratu dira bertso oiek. Eskuratu bezin laister, gure ontan bearke luteken bertso asko zituala ikusi genduan. Orrek leen esan deguna egiztatzen du: edozein bilketa aal dan osoena egiten saiatu bear dala; baiña osoa izango dala ametsik egin gabe.

Ala ere, liburu ontarako ain egokiak ziran bertso oiek ez ditugu onera aldatu. Arrazoi nagusia, beste batek billatu dituala, eta argitaratu ere bai. Aren lanaren uzta dira. Bi liburu bearko ditu, beraz, garai artako bertsoak ezagutu nai dituanak.

Bi zatitan eratu degu liburu au. Leenengo zatian, Frantzia'ko Iraultzako bertsoak: 1789-1792. Bigarrenengoan, Konbentzioko gerra edo *Guerra de la Convención* dalakoarenak. Iraultzailleak erregeri lepoa moztu edo gillotinatu zutenean, Europa'ko erreinuak Frantzia'ri gerra jo baitzioten.

Leenengo, bertso-sailla agertuko degu, gure eskuetara iritxi bezela. Eta urrena, aal ditugun txeetasun eta argibide guztiak eskeñiko ditugu, kondaira aldetik bertso oiek ongi ulertu ditzagun eta beren esanaiaz jabetu gaitezen. Baita zenbait aldiz doiñua agertu ere. Baiña ortik kanpora ez degu pausorik egingo. Kondaira-liburuetan esaten ez danik ez baitigute bertso auk jakin arazten. Liburu oietara jotzea dauka, beraz, zerbait geiago ikasi nai duanak.

Ala ere, badute bertso auk kondaira-liburu askok ez daukaten beste meritu bat. Garai artako jendearen abotsa dira, esate baterako. Orduko gizon-emakumeen itzak entzuten ditugu. Sorginkeriz bezela, urteetan zear atzera eramaten gaituzte eta gertakizun latz aien erdian jartzen.

XVIII'garren mendearen bukaera aldekoak dira emen eskeintzen ditugunak. Mende artako beste zenbait bertso ere baditugu bilduak eta argitara eman gabeak. Oiek danak, eta bestek eukiko dituztenak, begien aurrean ditugunean, orduan izango da XVIII'garren mendeko erri-poesiari buruz zerbait esaten asteko garaia.

Nere iritzirako, ordea, orduko bertso asko jende eskolatuak jarriak dira; eta erri-erriarenak guk nai



baiño gutxiago. Beti ere bereizketa ori egin bearrean izango gera: erriaren eta jende eskolatuen bertsoen artean muga jarri alegia.

Liburu ontan, apaiz asko ikusiko ditugu bertso jartzeari emanak. Zergatik ote? Erriak moldatzen zituala eta jendeari gustatzen zitzaizkiola ikusirik, berak ere bide beretik abiatu ziralako? Edo apaizak jartzen zituztela ikusirik, erriak ere bertso gintzari ekin ote zion? Edo-ta erriak jartzen zitualako, apaizak ere asi; eta erriak ori ikusita, berak gogo geiago-rekin leengo langintzan jarrai?

Esan bezela, bilketa au egin bearreko lana zan, osoa eziñezkoa bazaigu ere, aal dan osoena beintzat. Egin degu eta, akatsez betea egongo dala bildur bagera ere, irakurlearen eskuetan jartzen degu.

**FRANTZIA'KO IRAULTZA  
BERTSOTAN**

## FRANTZIAKO ERREBOLUZIONEA

- 1/ O Frantzia, o Frantzia maitea,  
zertara haiz? Errak, mintza hadi;  
mintza hadi, erresuma tristea,  
hire gaitzez diat damu handi.
- 2/ Naizelarik hitaz desterratua,  
herrarikan ez dauiat ekartzen;  
amodioz bihotza gainditua,  
nigarretan higatik nauk urtzen.
- 3/ Izanen haiz beti ene herria,  
hazi bainauk sortu naizenetik;  
gal dezadan lehenago bizia  
ezen-ez hi oroitzapenetik.
- 4/ Errak orai nola haizen kausitzen,  
utziz geroz ohiko legea;  
zer abantail zaik berritik etortzen  
deklara zak, o doakabea!
- 5/ Bainan helas!, ez duk lege berririk,  
ez zaharrik, hire gogorako.  
Hor bizi haiz, oroz arnegaturik,  
paganoak baino gaizkiago.

- 6/ Laudatzen du esposaren uztea,  
noiz-nahi den berriz ezkontzeko.  
Horixe duk abre huts izatea,  
pasiene beren segitzea.
  
- 7/ Jakiteko nork hauen kondenatzen  
idek ezak Ebanjelioa;  
Jesu-Kristok han derauk idokitzen  
berezteko pribilejioa.
  
- 8/ Libertatez galdu duk gazteria,  
bizioan asko pulunpatuz;  
jarria duk gora gaixtakeria,  
bertutea behera geldituz.
  
- 9/ Horren gatik ez duk eskrupularik  
manamendu guzien hausteko;  
Jainkoaren beldurraz gabeturik,  
bekatutik zerk hau beiratuko?
  
- 10/ Zoraturik Erreboluzioeak,  
ezarri tuk oro nahasirik;  
indar xozilez egin dituk legeak,  
zuzenari bideak hautsirik.
  
- 11/ Kartux eta Mandin dituk gidari,  
ohingoan badakik ederki;  
ez diok, ez, barkatu Elizari,  
gauza sainduz gizendu haiz ongi.
  
- 12/ Baltasarren zortea duk merezi,  
eremanik baso sakratuak;  
indignoki dituk elizak utzi,  
belar eta lastoz kargatuak.

- 13/ Ezarri tuk, o profanatzaillea,  
planta hortan Jaunaren tenploak;  
ezarri tuk, pertsekutatzailea,  
hersturetan haren ministroak.
- 14/ Ez baziren Frantziatik jalgitzen,  
eman preso, gillotina gero;  
eta baldin ateratzen baziren,  
ken orduan ontasunak oro.
- 15/ Hire harmen soinuak aberatsa  
iziturik, maiz duk arrobatu;  
galdeginez bizia edo moltsa,  
hainizetan biez duk gabetu.
- 16/ Gisa hortan egin dituk Indiak,  
bakotxari idokiz berea;  
ez dik hala manatzen justiziak,  
bai ordean haren bihurtzea.
- 17/ Irabazten bahu ere mundua,  
Asanblea gogotik segituz,  
zer probetxu, galtzen baduk arima,  
lur poxi bat hari preferatuz?
- 18/ Itsu bezin inpio haiz kausitzen,  
ez dezakek uka nihilere;  
hitzez eta obraz duk seinalatzen  
ez dukala federik batere.
- 19/ Kasik ez duk sinisten zeruetan  
Jainko Jauna guzien gaineko;  
gutiago direla mundu huntan  
erregeak haren iduriko.

- 20/ Hil nahi tuk oro Luis bezala,  
errana den nahiz Eskrituran  
erregeak Jaunak egin tuela,  
diolarik: *Per me reges regnant.*
- 21/ Gure ona eta bakea gatik  
buruzagi eman tik lurrean;  
hartakotzat buruak manatzen dik  
menbroeri gure gorputzean.
- 22/ Zer dolore, ondikotz!, zer bihotzmin!,  
munduan zen printze prestuena  
borreuaren eskuetan hil dadin  
hala-nola gizon gaixtoena!
- 23/ Zuelakotz fede katolikoa  
inozenta baituk kondenatu;  
pazientki jasanik herioa,  
zeruak dik martir koroatu.
- 24/ Berriz ere, zer gauza latzgarria:  
erregeren buru sakratua,  
gorputzetik haizkoraz ebakia  
odoletan ikus mainatua!
- 25/ Bihotz gogor, bihotz burdinazkoak,  
etzarete oraino guritu!  
Haren espos erregina gaixoak  
zorte bera behar du pairatu!
- 26/ Agian ez familia guziak,  
zein harentzat bainaiz ekuratzen,  
erregetzat baldin Probidentziak  
ez badauku Dofina beiratzen.

- 27/ Printze gazte, haur guziz xarmagarri,  
seme bakar, aitaren semea,  
zein itsuski derautzuten ekarri  
pozoin gordez herio kolpea!
- 28/ O Jainkoa, zure juiamenduak  
guziz dira gora eta barnak!  
Zuk zeronek tronurat altxatuak  
aurtiki tu lurrera gizonak.
- 29/ Krime hori, errege nahi zuten  
gaztigatu, nola baita zuzen;  
bainan hain da latzgarri edireiten,  
non bere gain Jaunak baitu hartzen.
- 30/ O Frantzia, o Frantzia dorpea,  
hain mutiri zerk hau errendatu?  
Galdu baituk errelijioea,  
ordutik haiz odolez gosetu.
- 31/ Burasoek, haren zimendatzeko,  
ziteztean sofritu guziak;  
hik aitzitik haren ezeztatzeko  
ideki tuk odol iturriak.
- 32/ Nork erakuts hik egin sarraskiak,  
edo konda hik moztu zintzurak?  
Ito nahiz giristino hazia,  
bete dituk masakrez bazterrak.
- 33/ Hituela deitzen «aristokratak»,  
kendu dituk bizien artetik;  
egiazko katoliko perfetak  
hil baitire Jesu-Kristo gatik.

- 34/ Bai Parisen, Bordelen, bai Roanen,  
Nimes, Arles, Abiñon, Marzellan,  
Tulon, Nantes, Renes eta Lionen,  
ixuri duk odola zurrutan.
- 35/ Hustu dituk presondegi zokoak  
sabre-kolpez edo peza-tiroz;  
hil karreon nekaturik besoak,  
hasi hintzen jende galtzen itoz.
- 36/ Ihesari milek ziteian eman,  
utziñ oro, salbu xoil bizia,  
nahiagoz hauzo erresuman  
karreatu azken miseria.
- 37/ O Frantzia, zenbat akusatzaile  
egun batez etzauk aterako!  
Hanbat martir, bai, hanbat dohakabe  
hire kontra dituk altxatuko.
- 38/ Marrasketan ditek Juie justua  
otoiztuko mendeka detzala,  
«Biziaren eta funtsen gozoa  
galdu dugu, Jauna» diotela.
- 39/ Bainan helas!, erranak deus ez dira  
erratera nohanen aldean;  
hemen nola bihotzak ez erdira  
Jainkoaren gauzez mintzatzean?
- 40/ Zer zorigaitz –oi sakrilejioa!–  
jenden oinen azpian emana  
sakramendu guzien gainekoa  
estalirik Jesus dadukana!



- 41/ Jainko baten amodio handiak,  
arimaren gozoki hazteko,  
preparatu bazko miragarriak  
esker hori du bere paguko!
- 42/ O sailduak, oi zuek, aingeruak,  
aldareko sakramenduari  
emotzue zuen errespetuak,  
behatz han Salbatzaileari.
- 43/ Zabaldurik besoak gurutzean,  
Jainko-gizon adoragarria  
hil izan duk Galbario gainean  
emaiteko gizoner bizia.
- 44/ Misterio bera duk zelebratzen  
aldareko sakrifizioan,  
bainan ez duk odola han ixurtzen  
hala nola lehenbizikoan.
- 45/ Jesu-Kristok, hiltzera zohalarik,  
manatu dik erraiteko meza.  
Hik ordean, Jainkoaz burlaturik,  
urratu duk haren ordenantza.
- 46/ Bekatuen karga lehargarria  
arintzeko, soinetik kentzeko,  
ordenatu zaukuk penitentzia,  
haren bidez oro barkatzeko.
- 47/ Tribunal bat hain kontsolagarria  
zertako ken, alde denaz geroz?  
Ez dezakek gahait kontzientzia,  
hagina dik bortitz eta zorrotz.

- 48/ Laburtzeko, bertze sakramenduak  
uzten tiat ixiltasunean;  
zazpi dituk zuzenki kondatuak  
Elizaren Bilkuia batean.
- 49/ Igandeak, bai eta bertze bestak,  
kasatzeko lurraren gainetik,  
ezarri tuk heien orde dekadak,  
idokirik Satanen golkotik.
- 50/ Gaixtagina, sailduen imajinak  
erre dituk edo xehakatu,  
utzi gabe bederen gurutzeak,  
gurutzeaz baikare salbatu.
- 51/ Agur, beraz, agur, o gurutzea,  
berriz ere agur bihotzetik;  
besoetan erregen Erregea  
atxiki duk, hila guregatik!
- 52/ Agur, agur, zur benedikatua,  
hire baitan diat esperantza;  
naizelarik bekatuz kargatua,  
kotsolatzen dautak hik bihotza.
- 53/ Dugun zerbait erran Jaunaren hitzaz,  
aipatzea berex du merezi.  
Benzutua harma balios huntaz,  
mundua duk bertze moldez bizi.
- 54/ Apostolu sailduen predikuak  
zein populuk ez ditik aditu?  
Heien oihi guziz boteretsuak  
paganoak ditik gonbertitu.

- 55/ Ilunbetik haren distiadurak  
gidatu tik argira gizonak;  
piztu ditik haren indar bakarrak  
ehortzirik tunban zaudezenak.
- 56/ Fedegaben ohiko ilunbeak  
itzuli tuk berriz Frantziarat;  
predikurik ez nahiz Asanbleak  
zenbat ez da jausten ifernurat!
- 57/ Erranen daut xisman pulunpatuak:  
«Mezarekin baituk herri hautan  
predikuak eta sakramenduak  
juramentu egin apezetan.»
- 58/ Hobe lukek, diot nik ihardesten,  
zin eginik ez balitz batere;  
hitz ederrez hari tuk iñoranten  
enganatzen ederki halere.
- 59/ Ez duk aski hekien ematea,  
ez badute hartako zuzena,  
zeren baita legearen haustea  
egitea debekatu dena.
- 60/ Elizaren laudamena non dute  
dretxoz haren artzain izateko?  
Ezen badik Elizak duda gabe<sup>1</sup>  
ministroak berak hautatzeko.

---

1. Bearbada, emen «zuzen badik Elizak duda gabe» bearko luke.

- 61/ Jesu-Kristok bere dizipuluak  
berak ere zitian berezi;  
gauza bera egiteko .....<sup>2</sup>  
Elizari halaber tik utzi.
- 62/ Manamendu guziz premiazkoa  
artzain ona zein den jakiteko;  
bai eta're zein den artzain gaixtoa,  
utzi dik hau hari behatzeko.
- 63/ Nork ezagut zein den egiazkoa,  
ez badauku Elizak erraten?  
Haina xoilak duk konfiantzazkoa  
zeina baitik berak aprobaten.
- 64/ Bordan sartzen ez direnak atetik  
Jesu-Kristok deitzen tik ohoinak.  
Ardi larruz bizkarrak estalirik,  
barnez dire otsorik beltzenak.
- 65/ Bordaz hemen Eliza duk aditzen,  
ate hortaz haren erregelak.  
Erregelan han ez direnak sartzen  
dituk ñapur, ez artzain leialak.
- 66/ Notari bat ez bada karguratzen  
Estatuko legen arabera,  
haren lana deus ez duk zerbitzatzeko.  
Erretoraz diot gauza bera.

---

2. Zerbait falta da emen. Utsunea nola bete liteken ez degu ikusten.

- 67/ Elizaren partez izendatua,  
haren manuz egorria gero  
hedatzera Jaunaren hitz saindua,  
huraxe duk Jaunaren ministro.
- 68/ Ez ordean zin eginik Elizan  
bortxaz sartu diren malurusak;  
Asanbleak emanik bere plazan,  
dituk arren artzain errebesak.
- 69/ Zer sujetak! Eginik juramenta,  
abiatu dituk ezkontzera;  
xede hori zitean begiztatu  
zohazila zinen egoztera.
- 70/ Oi Frantzia, horra hire apezak!  
Nolaz ez haiz hetaz ahalkatzen?  
Obretarik zer diren ikus ezak.  
Berant dituk, berant ezagutzen.
- 71/ Hemen dio intrusen alde denak:  
«Gaixto dena beretzat duk gaixto.  
Ez ene gain egin bertzen hobenak:  
apezenak, apezen konduko!».
- 72/ Egia duk partikularraz hori,  
beraz xoilki arta dadukanaz;  
ez ordean, jarririk aintzindari,  
bertzez ere kargatua denaz.
- 73/ Apeza duk, oi, gizon publikoa,  
Elizaren nonbrean egina,  
bere meza eta ofizioa  
fidelentzat erraten tuena.

- 74/ Hik segitzen dukanak gisa hortan  
hire partez dik otoitz egiten;  
Jainkoaren aldare sainduetan  
ararteko hura duk ematen.
- 75/ Horren gatik, hirekin juntatzeko  
erraten dik: *Dominus vobiscum*.  
Hik ordainez: *Et cum spiritu tuo*.  
Miletan duk hori mezetan entzun.
- 76/ Higanauta denean ministroa,  
luterano edo kalbinista,  
populoa duk lege berekoa,  
baldin hari jarraikitzen bada.
- 77/ Xismatiko baitire zin eginak,  
hain aintzina dire xismatiko  
zin eginen ondotik dabiltzanak.  
Gidatuak gidak bezalako.
- 78/ Berriz arren erran ez dezakala  
juramentu eginen gaizkian  
hik parterik batere ez dukala,  
nahiz heien mezetan habilan.
- 79/ Bekatuen absoluzioneaz  
bekatuan haukate lotua,  
ezkontzaren benedizioneaz  
sakramendu huntaz gabetua.
- 80/ Zorte triste, zorte latzgarria,  
biziaren orde herioa!  
Damnatzeko xoilki dadin balia  
salbatzeko erremedioa!

- 81/ Itzul hadi, itzul bekatorea,  
denbora duk hartzeko errege;  
besarka zak erreljioea,  
deskantsurik ez duk hura gabe.
- 82/ Eskas dituk erran diren bi gauzak:  
aldarea, tronua halaber;  
hek utzirik jin dituk hire gaitzak,  
hek hartuz joanen dituk laster.
- 83/ Eman nahiz deputatu abilak  
gauzak oro gaineko herrunkan,  
tenporalak, bai izpiritualak,  
ezarri tuk guziak errekan.
- 84/ Ezen ez duk orai aments ikusten  
hire diru biltzaile galantak  
harrapaka hari zaizkala jaten,  
iretsirik apezen errentak.
- 85/ Zirauteno Elizen ontasunek,  
zerga guti huen pagatzeko;  
iretsirik hek oro, kargudunek  
tailaz ungi haute zapatuko.
- 86/ Asanblea nausi duk zuzen gabe;  
ken ezak, ken, manatu dik aski.  
Erregeren anaia duk errege,  
hari behar hatzaio jarraiki.
- 87/ Errege bat hobe duk hainitz baino;  
bat eman dauk Jainkoak bakarrik.  
Zazpi ehun, bai eta gehiago,  
zertako tuk, bat frango delarik?

- 88/ Inposible bezala duk guziak  
nonbre hortan onak izan ditén.  
Zer! Guziak?... Mirakuluz erdiak  
dituk gizon prestu gertaturen.
- 89/ Ez tuk falta tropan nahastariak,  
injustuak edo krudel hutsak.  
Handik dituk heltzen gaixtakeriak,  
egiten tuk ondikoz frogantzak.
- 90/ Errege bat buruzagi zenean,  
bazen bake, bazen libertate.  
Orai ez duk bizia segurean,  
ez haiz hire ontasunen jabe.
- 91/ Bil etzak, bil, apez katolikoak,  
botatuak hitaz Frantziatik,  
aspaldian ezen xismatikoak  
bereziak dituk Elizatik.
- 92/ Eman etzak apezteko moienak,  
bai errentak aments bizitzeko;  
nihork ez dik eskolatzeko lana  
hartu nahi, deus ez izateko.
- 93/ Idek etzak hortako berehala  
kolejio seminarioak;  
akabo tuk sekulakotz bertzela  
Elizaren erremedioak.
- 94/ Eginen duk orai plazer dukana.  
Heriotik ez duk eskaporik.  
A, orduan, orduan dukek pena  
hire faltaz arima galdurik!



- 95/ Ez dezakek egin salbamendurik  
Elizaren galtzarrean baizen;  
juia ezak, hire baitan sarturik,  
haren ume leial ote haizen.
- 96/ Otoizten haut eta errekeritzen  
pentsatzeaz eternitatean;  
azken finak bahitu meditatzen,  
ez hinteke bizi gaizkipean.
- 97/ Sarri ez hau hire libertateak  
libratuko Jaunaren eskutik;  
ifernuan behar tuk azoteak,  
konbertitzen ez bahaiz gogotik.
- 98/ Ez ofentsa, giristino fidela,  
ez naiz zuri mintzo bertsu hautan;  
aitortzen dut hobenik ez duzula  
Frantziako berritzapenetan.
- 99/ A, badakit zenbat duzun sofritzen,  
gaixtaginez hor setiatua,  
otso gosek bildots bat inguratzen  
duten gisan, etsaiez herstua.
- 100/ Aingeruen janari sakratua  
presentean ezin errezibi;  
Elizaren laguntzez gabetua,  
otoitzean behar zare bizi.
- 101/ Oroit zaite Jainkoak ez duela  
permetitzen sobra tentamendu  
arimari arriba dakiola;  
flako dena berak bortizten du.

102/ Duzun bihotz frogantzako denboran!  
Aitak ditu gaztigatzen haurrak;  
ez da jarri sekulakotz koleran,  
entzunen tu hekien nigarrak.

103/ Zaude, beraz, fermu zure fedean,  
ikusten du Jaunak zertan zaren;  
ibil zaite zuzen haren legean,  
bide hortaz zare salbaturen.

Bertso-sail luze au liburu ontatik artua degu: «*Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire*», par l'Abbé Haristoy, curé de Ciboure. Tome I. Pau. Imprimerie Vignancour. S. Dufau. Imprimeur, 1895. Alegia: Euskalerriko parrokiak Iraultzaren denboran, Ziburu'ko apez Haristoy'k egiña.

Bertsoen ondoren, frantzes itzulpena ematen du, oar jakingarri onekin batera:

«*Ce chant fut composé par un prêtre émigré; il est postérieur à la mort de Louis XVI, qu'il mentionne. L'auteur semble appartenir au dialecte d'Espelette, mais il était familiarisé avec la dialecte du canton de St-Jean-de-Luz*».

Alegia, kanta au atzerrira iges egindako apaiz batek Luis XVI'garrena il zuten ondoan moldatua dala, bertsoetan eriotz ori aitutzen baita. Euskalkiz, berriz, Ezpeleta aldekoa dirudiala, baiña Donibane-Lohizunekoa ere ezaguna zuala egilleak.

Bertso-mota, irakurtzen asterakoan ez-ezaguna dala ematen badu ere, gure erri-literaturan ongi sustraitua dago. «Intxauspe'ko alaba dendaria»-rena baita, puntuaren bidez leenengo lerroa irugarrenarekin eta bigarrena laugarrenarekin uztartuz. Kantatu ere, doiñu orrekin ederki egin diteke.

Bidasoa'z Iparraldeko irakurleentzat alperrikakoa izango dira gure oraingo argibideak. Baiña liburu

au geienik Egoaldean zabalduko baita, emengoei langarri izango zaizkiela dudarik ez da.

Irugarren bertsoan, bera ere frantzesak dala aitortzen du egilleak. Zein erritakoa ez du esaten; ez-ta bere izen-abizenik ere. Ori ixiltzeak ez gaitu arritzen. Arrisku aundia ekarri baitzezakean. Andik urteetara berdin gertatuko zan Egoaldean karlista gerrateetan, orduko bertso-saillik geienak izenik gabekoak baititugu, eta arrazoi beragatik noski.

Baiña bigarren goan adierazten duanez, erbestean da. Garai artan jende askok iges egin baitzuan Frantziatik. Batzuek, aundikiak edo *aristokratik* ziralako. Beste batzuek, apaizak izan eta Gobernuak eskatzen zien juramentua egin etzutelako. Gai ontaz aurrera-geago itzegingo degu.

Jentil-erria baiño okerrago jarri omen da Frantzia, indar utsez eman diran lege berriak dirala bide: dibortzioa, gaztediaren ondamendia, Jainkoaren aginduak baztertzea eta abar (5-10 bertsoak).

Gobernua sosik gabe baitzegoan, Elizaren ondasunak aren kontura pasa zitezen agindua onartu zan 1789'ko Azaroaren 2'an. Gai ontaz, lapurketa utsa zala esanez, 11-17 bertsoak itzegiten dute.

Urrengo bertsoak (19-21), erregeen eskubideak Jainkoaren eskutik datozela esaten digute, eta ez erriaren eskutik. Errege-zale sutsua genduan, beraz, bertso auen moldatzaillea.

Baiña Frantzia'ko errege Luis XVI'garrena gillotinatatu egin dute. Ori 1793'ko Ilbeltzaren 21'ean gertatu zan. Maria Antoineta erregiñari, urte bereko Urriaren 16'an lepoa moztu zioten. Erregeren semea, berriz, Luis XVII'garrena deitu oi zaiona, 1795'eko Ekainaren 8'an il zan. Pozoindatuta il zalako otsa zabaldu zan; baiña, olakorik gabe, berez etorri omen zitzaion eriotza. Gai auetaz, 22-29 bertsoak itzegiten

dute. Txeetasun oiek, bertso-sail au azkenengo gertaera orren ondotik jarria dala salatzen digute.

Garai artan, ilketa aundiak egin zituzten iraultzaleak. Adibidez, 1791'eko Irailleko sarraskiak eta *La Terreur* —«Bildur izua» esan genezake euskeraz— nagusitu zanean, 1793'ko Ekainaren 2'tik 1794'eko Uztaillaren 27'ra. Bertsoak diotenez, Frantzia «odolez gosetu» egin zan eta «odol-iturriak» idiki. Askok galdu zuten bizia, eta beste batzuek, salbatuko baziran, atzerrira iges egin bear izan zuten. Gai auetaz, 30-38 bertsoak.

Denbora berean, kristautasunaren aurkako ekaitz gogorra sortu zan: mezaren eta sakramentuen kontra eraso; Eliz-egutegia kendu, igandea eta gaiñontzeko festak ere bai, zazpi eguneko astearen ordeaz amar egunekoa (*decada*) jarri; eliz-irudiak eta gurutzea bera ere baztertu, eta sermoiak ere galerazi (39-56 bertsoak).

Ondoren, juramentua egindako apaizen arazoarekin asten da. Beste bertso-sail batzuk ere badira gai ontaz. 1790'eko Uztaillaren 12'an, *Constitution Civile du Clergé* dalakoa onartu zan; eliz-gizonen araudi zibilla alegia. Lege onek, Elizaren zer-egitietan sartu eta gauza asko aldatzen zituan. Frantzia'ko Elizaren buruzagitza kendu egiten zitzaion Aita Santuari. Gotzai eta apaizak, berriz, Frantzes Gobernuaren morroi biurtu. Apaizak, lege berria onartu eta juratu edo zin egin bear zuten. Geienak, euneko irurogei baiño geiago, etziran artaratu eta leengoari eutsi zioten, naiz-eta beren ondasun guztiak galdu. Aita Santuak, berriz, Pio VI'garrenak, kondenatu egin zuan juramentu edo zin egindako gotzai eta apaizen jokatibidea, 1791'eko Apirillean emandako agiri baten bidez. Gai ori, 57-83 bertsoak darabilkite.

Urrengo bertsoetan, bukaera arte, kristauak leengo fedean, egiazko fedean alegia, leial jarraitzeko zer egin bear duan adierazten da.

86'garren bertsoak «erregeren anaia duk errege» esaten digu. Erregeren semea il ondoren, koroia aren anaiari zegokiola esan nai du. Urteen buruan ala gertatuko zan gaiñera. Luis XVI'garrena zanaren anai bat izango zan errege, Luis XVIII'garrena izenarekin; eta urrena beste anai bat, Karlos X'garrena. Oietxek izan ziran Frantzia'ko azken erregeak.

\* \* \*

Zin egindako apaizen arazoa onela argitzen du J.-B. Etcheverry jaunak, *Gure Herria* aldizkarian, 1965'eko Ekainean, *Ixtorio Xaharrak* izeneko idazlanean:

«Frantziako buruzagiek finkatu zuten lege hau: handik harat populuak bere bozez izendatuko zituela apezpikuak eta herrietako erretor, bikariak, bertze edozoin departamenduko kargudunak bezala.

Gehiago dena, apez guziek juramentu eginez onhartu beharko zutela Aita Sainduaren kontrako lege hori.

Lapurdin eta Baxenabarren bereziki arras guti izan ziren (180 apezetarik 26) lege horri baia eman zutenak.

Horien artean Beskoitzeko, Ahetzeko, Ortzaizeko, Domintxineko, Urketako erretorak, eta oroz gainetik Mariturre Senperekoa...»

\* \* \*

Bertso-sail au, aitatzen dituan gertakari guztien ondotik moldatua izango da noski. Orregatik, bera

baiño leenagokoak baditugu beste sail batzuek. Ala ere, Frantziako Iraultza guztiaren berri naiko zeazki ematen baitigu, berau ipiñi nai izan degu beste danen aurretik.

## **GARAT GAZTENAREN ETA ITURBIDENTZAT**

- 1/ Garat eta Iturbide, bozak errepikatuz,  
euskaldun leial guziek kopletan izendatuz,  
merezi duten bezala beti lauda zatzue;  
bati eta bertzeari eskerrak emotzue.
- 2/ Eskaldunen omen ona hek dute hel-arazi  
erregeren tronuraino, bai eta ardietsi  
Estatu Jeneraletan eskaldunen auhenak  
eskaldun beren ahotik izan dituen entzunak.
- 3/ Erregeren ordenetan ez ziren aipatuak  
eskaldun leial batzuen herri ohoratuak.  
Bainan laster Iturbide hortaz baitzen ohartu,  
lapurtarrak berehala zituen kontseilatu.
- 4/ Baiona'ko senexalak eman ordenantzari  
protestazione batez zitzaion ihardetsi.  
Eskaldunen arrazoinak Garat-ek presentatu,  
eta erregek guziak onak ditu kausitu.
- 5/ Gauzak hain ongi hasiak ongi akabatzeko,  
Garat eta Iturbide behartu aintzineko.  
Eman bekizkiote beraz zor zaizten ohoreak,  
hek izan direnaz geroz eskaldunen loreak.

- 6/ Garat eta Iturbide parti bitez gorterat,  
eskaldun guzien partez Luisi erraiterat,  
gure nahiaren pare balitz gure ahala,  
laster bere deskantsuaz goza litekeiela.
- 7/ Haren eta gure penak errotzue humilki  
iturburu beretarik datorzela segurki:  
merezi ez duenari fidantzia emanez,  
garela aflsituak dolorerik minenez.
- 8/ Estatua eri dela banatu du berria;  
bainan ezagutuz geroz gaitzaren iturria,  
askiko da duda gabe, haren sendarazteko,  
zenbait membro pikatzea, bertzen kontserbatzeko.
- 9/ Erregek jakin behar du prest direla behintzat,  
behar dituen guzian, bihotz onez harentzat,  
gure neke-izerdiak eta gure odola,  
orai eta gero ere lehenetan bezala.
- 10/ Mendi idorren oinetan ontzen ditugun lurrak,  
bere ganik ez balire diren bezain agorrak,  
ez zen agertuko nihon eskaldunen parerik,  
parte on bat jasaiteko Estatuko zorretik.
- 11/ Ez dire beti beharrak emanez sokorritzen.  
Diruzko laguntzen orde, gortearen argitzen  
ariko den erromesak, askotan gehiago  
lagunduko du errege, aberatsenek baino.
- 12/ Eskaldunen bihotzetan diren sendimenduak,  
beren printze onarentzat egin tuzten botuak  
zeruak entzun baletza, gure erregek segurki  
hainitz urtez erregina lezake dohatsuki.

Amabi bertso auek, Piarres Lafitte zanaren *Poè-*



*mes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1972) artuak ditugu.

Bertsoak ulergaitzak izango zaizkigu, aitatzen diran gertakariak kondaira aldetik argitzen ez badira.

Frantzia'ko erregeak, Luis XVI'garrenak, Estatu Jeneralak bildu zituan Versailles'en, 1789'ko Maiazaren 5'ean.

Lapurdi'k ere bere ordezkariak bialdu zituan. Oietakoak ziran emen aitatzen diranak: Iturbide eta Garat gazteena. Zaarrena ere bai-baitzan. Onek Dominique zuan izena; eta besteak, Dominique-Joseph.

Estatu Jeneralak bazterrera utzia zuten Uztaritze'ko Biltzarra. Bazanik jakin ere ez, bearbada. Ordezkarari oiek protesta egin zuten, ordea, eta aien esanak ontzat artuak izan ziran.

Baiña ez luzarorako. Urte bereko Abuztuaren 4'ean, lurralde guztiak berdin bear zutela-ta, Bidasoa'z Iparraldeko euskal probintzietako foruak kenduak izan ziran, naiz-eta Garat bi anaiak alde itzezin. Uztaritze'ko Biltzarrak orduan izan zuan azkena.

\* \* \*

Esan degunez, bertso auen egillea Salvat Monho izan zan. Beste sail batzuk ere jarri zituan arek Frantzia'ko Iraultzari buruz. Liburu ontan azalduko dira, danak ere or goian aitatutako Lafitte'ren liburu ortatik artuak. Berak atera baitzuan illunpetatik argira euskal idazle au.

Bertsoak argitaratu ez-ezik, Salvat Monho'ren bizitzaren berri ere ematen du Lafitte'k bere liburu ortan. Biografia orren argibiderik nagusienak emen azaltzea on izango dala derizkiogu.

1749'ko Abuztuaren 22'an jaio zan, Izturitzeko

errian, Larrart etxean. Gurasoak, Bernard Monho eta Mari Laborde izan zituan.

1774'ean apaiz egin ondoren, Azkain'go bikario izendatu zuten; eta 1778'an, Uztaritzekoa. Aren arrastoa galdu egiten da gero zenbait urtetan. 1790'eko Iraillean, ordea, Bardotze'n bikario azaltzen da. Beste bi apaiz ere baziran: Delissalde, erre-torea, eta Mentaberri, bikario au ere.

Bero-beroenean zan orduan Iraultza. 1790'eko Uztaillaren 12'an, eliz-gizonen araudi zibilla onartu zan, Frantzia'ko Eliza Aita Santuarengandik berezi eta Paris'ko gobernuaren mendean jartzeko asmo-tan. Apaizak-eta, araudi zibil orren alde zin edo jura-mentu egin bear zuten.

1791'eko Otsaillaren 6'an, Delissalde eta Menta-berri zin egitera deituak izan ziran. Delissalde'k, kontzientziaren karga izango zuala-ta, etzuan jura-menturik egin. Mentaberri'k bai, ordea.

Biamamonean, Monho'ren txanda. Au ere etzan gobernuaren esanetara makurtu.

Andik aurrera, etziran alkarrekin ondo konpon-du juramentua egindako apaiza, Mentaberri, eta egin gabeak, Delissalde eta Monho.

Laugarren apaiz bat ere agertu zan errian: Bor-dele'n kartujo izandako bat, bardoztarra jaiotzez, Etchessahar abizenez, baiña Tiso ere esaten ziotena, familiaren izengoitia orixe baitzan. Erriko paperetan ez da ageri Etchessahar onek dalako zin ori egin zuanik. Baiña beste nunbait ere egiña izango zuan, beti ere Iraultzaren aldeko azaldu baitzan.

1791'ean, Favée de Villevielle, Baiona'ko bidezko gotzaia, kendu zuten, eta Sanadon, zin egindakoa, jarri. Onek Mentaberri izendatu zuan Bardotzeko erretore. Orduan Delissalde eta Monho'k, andik alde egin bear izan zuten, eta Egoaldera pasa. Leenengoa Oiartzun'a etorri zan, eta bestea ez da ageri nora.

1803'an, Ainhoa'ko erretore Monho izana dala agertzen da; baiña aren lekura Hiriart izeneko beste apaiz bat datorrela. Monho nora dijoan ez da esaten. Baiña 1806'tik 1819'ra Irisarri'ko erretore izango da.

1813'an, Napoleon'en tropak atzeraka zijoazen, eta Espaiña'koak Bidasoa ibaia igaro eta aurreraka. Batean, Mina napar jenerala Lakarra'n zalarik, bere zenbait soldaduk Irisarri urbildu ziran. Baiña bertako batzuek Erdoizea auzotik tiroka eraso zieten. Biaramon-goizean, Mina eta bere soldaduak Irisarri'ra abiatu, eskarmentu bat egin asmotan. Bidean, Utxerreka'ko eta Erdoiz-Etxeberri'ko etxekojaunak il zituzten. Bai zenbait etxetan lapurreta egin ere. Erriko jendeak, bildurturik, Baigura mendi aldera jo zuan.

Monho'k, ordea, gazteleraz ere bai-baizekien, Mina'ren aurrera etorri eta belauniko jarri zitzaion, barkazioa eskatuz. Bai Mina'k eman ere, eta egun artan jeneralak eta apaizak alkarrekin bazkaldu zuten.

1819'an, Monho'k erretiroa eskatu zuan, eta Bardotze'ra itzuli. Bertan il zan, 1821'eko Ekainaren 4'ean.

1930'ean, Lakarra'ko batek esku-idatzi batzuk arkitu zituan bere etxeko zoko batean. Bertako erretore zan Harriague apaiz jaunari eman zizkion, eta onek Piarres Lafitte'ren eskuetan jarri.

Lafitte'k *Gure Herria* aldizkarian argitaratu zituan leenengo, 1970'eko abuztuan asi eta urrengo zenbakietan jarraituz. Baita ondoren danak liburu batean atera, leengo moldiztegi-lanak aprobetxatuz eta izenburu onekin: «*Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821), Editions Ikas, Musée Basque, rue Marengo, 64. Bayonne-1972.* Liburu onen aitamena egingo degu guk beti, Monho'ren bertsoak nundik ditugun esaterakoan.

Esan bearrik ez dago, Monho'k gai askotako bertsoak dituala. Guk, liburu ontarako, Frantzia'ko Iraultzarekin zer ikusirik daukatenak berezi ditugu.

## IHARDESTEA

- 1/ Koplari apendiz batek gogoan pasatu badu bertsu hotz batzuen bidez Lapurdi gobernatu, sinets beza frogaturik enganioan zela, lapurtarren xoratzeko bertzerik behar dela.
- 2/ Bordaletik etorri den hitz-egile handiak, Iturbideren alde mintzo ziren guziak, agertu den bezain sarri, ditu ixil-arazi, eta lengoaia berri bat diote irakatsi.
- 3/ Uztarizko parketaren inguru gehienak, tabernako salak eta zokorik ilunenak, errepikaz egon dire gabaz eta egunaz, Garatentzat egin diren botuen oihartzunaz.
- 4/ Mundu handiaren bixtan mintzatzen ohitua, nihon parerik gabetzat haltoki laudatua ahaidetik hurbilenaz izan denaz geroztik, nor bera beiratuko da bertzela pentsatetik.
- 5/ Erresumako zein herrik eta zein probintziak igorriko tu gorterat gizon hain bereziak? Estatu Jeneraletan herritarren zuzenak hauk baino kartsukiago beiratuko tuztenak?

- 6/ Herritar kalitatea ez balitz ere aski  
jaun hauk gure intresetan sar-arazteko finki,  
esperantzatzeko dugu bertze manieraz ere:  
lapurtar gehienekin ahaide omen dire.
- 7/ Lapurdi'n zer egiten du arbaso-etorkiak?  
Beti noble izan dire eskaldun haur guziak.  
Ez dute jende handiek beraz zeren gorritu,  
gaztelu-dunen askazi direlakotz aurkitu.
- 8/ Idalgotan sartu gabe direla sinetsiak,  
gure osebak direla edo gure kusiak,  
deputatu egin tugun Garat anaia biak,  
ardiesten badituzte gure galde guziak.

Beste zortzi bertso auek ere, leku beretik artuak ditugu: Piarres Lafitte'ren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1972).

Aurreko saillaren ondotik esandakoak gogoan beariko ditu, bertso auek ulertu nai dituanak.

Kontuan artzekoa da leenengo bertsoak ematen duan txeeatasuna: beste koplariren batek bertsoak jarriak zituala aurretik. Monho'k aprendiz edo ikasle-tzat dauka, baina ordaiñetan beste bertso auek jar-tzen dizkio.

**ERROMAKO GORTETIK**  
(*Beltzuntze-ren koplén airean*)

- 1/ Erromako gortetik,  
Aita Saindua ganik,  
jin dire berriak  
pontifo berrientzat,  
apez zin egilentzat,  
bihotz hautgarriak  
eta latzgarriak.
- 2/ Jesu-Kristoren partez  
eta haren podorez  
gauzak pisaturik,  
Elizak ditu kentzen  
eta arras berexten  
bere gorputzetik,  
eskumikaturik.
- 3/ Zenbait profeta berri  
Elizan aitzindari  
nahi litezkenak,  
ukaturik fedez,  
higanoten legeaz  
hautatu direnak,  
dire atzemanak.

- 4/ Aita Saindurik gabe  
apezpikurik ere  
ez izana gatik,  
Elizaren fedean,  
errelisionean,  
ez da mudantzarik,  
dio Mentaberrik.
- 5/ Ez da hori guzia.  
Gure doktor berria  
deus ikasi gabetan  
ez da deusez penetan:  
baderasa elizan  
zinaren fagore,  
gezurrez badere.
- 6/ Jesu-Kristo noiz hil zen,  
tonban zenbat egon den,  
ez omen baitaki,  
haurrekin eskolara  
eta katiximara  
behar da ibili,  
Jesusetik hasi.
- 7/ Mentaberrik uste du  
jendea lilluratu  
bere gezur tzarrez;  
bainan bertzeak ere  
mintzatu gogo dire  
egia zaharrez,  
Elizaren partez.



8/ Ala gaixtakeriaz  
ala tontokeriaz  
Mentaberrik daki,  
Jesu-Kristoren hitzak,  
Jainko baten agintzak,  
hain inpertinentki  
dituen irauli.

9/ Jaun horren arabera,  
Aita Saindua bera  
bere kadiratik  
mintzo denean ere,  
ezin sinets daiteke,  
ez badu manurik  
erregeren ganik.

10/ Parisko Biltzarrean,  
ez Luis'en gortean,  
ez da arrastatu  
deus ere halakorik.  
Ez dakit Mentaberrik  
nondik duen sortu!  
Berak erranen du.

11/ Elizaren manuak  
beti Aita Sainduak  
ditu hel-arazten  
apezpikuen ganat;  
hauk erretoretarat  
dituzte igortzen  
publika detzaten.

- 12/ Jaunak beira gaitzala,  
Angleterra bezala  
xisma bat eginik,  
errege aitzindari  
emanez Elizari,  
errebelatzetik  
zeruko bidetik.
- 13/ Ez du nazioneak,  
ez du gure printzeak  
hori pretenitu.  
Luter'en liburutik  
du naski Mentaberrik  
hori ateratu;  
hala iduri du.
- 14/ Balio balu pena  
bertze zenbait koplana,  
fite molda laizke.  
Bainan aski dela zaut.  
Ihardesten baderaut,  
Bardotzen naiteke,  
Monho deitzen naute.

Amalau bertso auek, Pierre Lafitte'ren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1972) artuak ditugu.

Dakigunez, eliz-gizonen araudi zibillaren legea 1790'ko Uztaillaren 12'an eman zan, Frantzia'ko Elizari, Erroma'ko Aita Santuarekin lotura guztiak autsi ta Paris'ko gobernuaren mende jarri arazteko. Obispo eta apaizak zin edo juramentu bat egiñez onartu bear zuten lege berria. Baiña geienak etzuten olakorik nai izan.

Aita Santuak, Pio VI'garrenak, 1791'eko Apirillaren 13'an, agiri bat eman zuan Frantzia'ko fededun guztientzat, eliz-gizonen araudi zibilla eta zin egindako apaizen jokabidea kondenatuz. Leenengo bertsoak agiri ori aitatzen du.

Baiña sail guztia, irugarren edo laugarren bertsoetik aurrera, Mentaberri apaizaren dotriña berriaren aurka jarria da.

Leen ere esan degunez, eliz-gizon au Pierre Mentaberri zeritzan. Bardotze'ko apaiza zan, Monho bezela, Frantzia'ko Iraultza asi zanean. Araudi zibillaren aldeko ziña edo juramentua egitera deitua izan zan 1791'eko Otsaillaren 6'an, eta bai egin ere. Ez, ordea, bertako erretore jaunak eta Salvat Monho'k. Auek etziran ortaratu. Eta ondoren, esan bezela, Mentaberri'ren eta bere dotriña berriaren aurka Monho'k bertso auek jarri.

**MENTABERRI'REN POSESIONETAN  
SARTZEAREN OKASIONEAN**

*(Autor berak eman dituen koplak aire berean)*

- 1/ Gure eliza hartu  
eta handik kasatu  
gaitu Mentaberrik,  
etsaiek zitadela  
hartzen duten bezala,  
tropak ezarririk  
alde orotarik.
- 2 Dela xismatikoa,  
dela heretikoa  
dakigun bezala  
zin egin baldin badu,  
Sanadon apezpiku  
izanen duela  
ez du deus inporta.
- 3/ Basa-apezpikuak  
apez arnegatuak  
ditu aprobatzen,  
nahiz ez den hetan,  
ez hekin einduretan,  
deus ere ikusten  
biziorik baizen.

- 4/ Otoitzeko etxea  
ohoinen gerizea  
orai da bilatu.<sup>1</sup>  
Pontifo legezkoak,  
artzain egiazkoak,  
dituzte exatu,<sup>2</sup>  
ardiak hastandu.
- 5/ Satanek asmatua,  
hartaz gobernatua  
den Eliza hori  
ez da katolikoa,  
ez da erromanoa;  
ez du horrek Petiri  
izan aitzindari.
- 6/ Eliza modakoa  
ez da lehenekoa  
iduria gatik.  
Itxura berak dire,  
zeremoniak ere;  
bainan ez apezik  
boterez jauntzirik.
- 7/ Hekin indar eskasak  
beti bekatorosak  
tu hobendun uzten.  
Konfesaturik ere  
ez dituzte batere  
arimak garbitzen,  
bainan bai tronpatzen.

---

1. Bearbada, emen *bilakatu* obeki legoke.

2. Ziur asko, emen *uxatu* bearko luke.

Zazpi bertso auek ere, Pierre Lafitte'ren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik artuak ditugu.

Sail ontan ere Monho'k Mentaberri'ri gogorki erasotzen dio.

Bigarren bertsoak aitatzen duan Sanadon apezpikua, leen ere esanik daukagunez, araudi zibillaren alde zin egindakoa zan, eta Paris'ko gobernuak Baiona'ko eliz-barrutiaren buru ezarria. Ez, ordea, Erroma'ko Aita Santuak. Orregatik, «basa-apezpikua» esaten dio irugarren bertsoak.

Sanadon onek Mentaberri izendatu zuan Bardotze'ko erretore 1791'eko Azaroan, eta Delissalde eta Monho'k andik alde egin bear izan zuten, araudi zibillaren aldeko juramentua egin gabeak ziranez. Kanporatze ori leenengo bertsoak aitatzen digu.

Seigarren bertsoa, Francisque Michel'ek ere azaltzen du, bere *Le Pays Basque* liburuan (1857), oar onekin: «*Je connais encore une satire dirigée contre un prêtre constitutionel*».

## **BARDOTZEN GLUB**

(Airea: *De tout un peu*)

- 1/ Bardotzen glub!  
Bakearen gostuz badere  
Bardotzen glub  
egin nahi dute batzuk!  
Zer ari diren balakite,  
egin nahi ote lukete  
Bardotzen glub?
- 2/ Glub Bardotzen!  
Mentaberrik dauku asmatu  
glub Bardotzen.  
Uste dut burutik joan den!  
Ez dire perlak xerrientzat,  
ez konfiturak astoentzat...  
preparatzen!
- 3/ Glub hortarik  
nor nahi du presentatu,  
glub hortarik,  
jende galantez bertzerik?  
Zer jendeki tu horrek bildu?  
Nori nahi zaio aspertu  
glub hortarik?

- 4/ Herri huntan  
balinbada gizon galantik,  
herri huntan,  
ez ahal dire glub hortan!  
Hor sartu direnek segurik  
ez dute halako famarik  
herri huntan.
- 5/ Listan dire  
Gazarran, Arbinoritz, Petti.  
Listan dire  
Haristoy eta Rospide.  
Baratzar, Harozetxe, Mendi,  
Doyenart eta Xartrus hori  
listan dire.
- 6/ Baltsan dire  
Mahorat eta Azkondregi.  
Baltsan dire  
Bidart eta Etxepare.  
Uhalde eta Larramendi,  
Tisoren semea gidari,  
baltsan dire.
- 7/ Oraikotik  
Konstituzione berriak,  
oraikotik,  
baitu adixkide onik!  
Haren etsai diren guziak  
garraituko ditu Frantzia'k  
oraikotik.



8/        Balinbalitz  
          holako bolontier ungixko,  
          balinbalitz  
          zenbat mila Arbinoritz,  
          eremutarat igortzeko  
          etsaier buru egiteko,  
          balinbalitz!

9/        Kokardekin  
          Harozetxe eta Gazarran,  
          kokardekin,  
          –ez otoi irririk egin!–  
          agertzen badire fruntéran,  
          bere musketak soin-gainetan,  
          kokardekin!

Bertso auek ere, aurrekoak bezela Mentaberri-ren aurka jarriak, Pierre Lafitte zanaren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik artuak dira.

Iraultzaren denboran, *Glub* izeneko Alkarte asko sortu ziran Frantzia'n an eta emen. Bertso auek diotenez, Bardotze'n ere glub oietako bat antolatu zan, Mentaberri-ren gogoia ala izanik.

Michel Elissanburu'k (1826-1895) onela adierazten du *glub* oiek zer ziran, bere *Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki* liburuan, ez noski alkarte aiek goraltzeko asmotan:

«Anglesa da hitz hori, eta Anglesa dakienak daki.

Bertze orduz enperadore handi batek erraten zuen Anglesa dela antzaren lengua.

Erakuts lezagukete beraz antzarek, gure liburu Bokabularioek bezala, kluba dela gabazko gizonen bilkhura bat, gauza publikoez mintzatzeko.

Angletarren baditake kluba hori den; bainan Frantzian, orai duela ehun urthe, klubak konpara zaitezken, diru faltsegiteko lur pean hautatzen diren kabeneri, edo bertze ohoin zilho batzueri, non hartzen baitire xederik beltzenak, egiten planik tzarrenak, mila gaizki egiteko, non nahi ebasteko, nor nahi hiltzeko, asasinatzeko, zer nahi den gaixtakeria egiteko.

Egiaz klubetarik atera ziren orduan, eta hedatu bazter guzietarat, urhe eta zilhar faltsoak onentzat barreatzen diren bezala, matsimarik galkorrenak, doktrinarik faltsoenak, krimarik ikharagarrienen egiteko deseinurik gaitzenak.»

Bostgarren eta seigarren bertsoak, alkarte orren sozioen izenak ematen dizkigute. Oien artean, bostgarren bertsoak «Xartrus» bat aitatzen digu, kartujo bat alegia; eta seigarren bertsoak, «Tisoren semea». Baiña ez dira bi, bat bera baizik, Lafitte'k bere liburuaren itzaurrean azaltzen duanez. Leen ere esan degunez, Jean Etchessahar deitzen omen zan; Bordele'ko konbentuan kartujo izana eta, Iraultza asi zanean, bere sorterri Bardotze'ra itzulia. Tiso, familiaren izengoitia omen zan. Eta, itxurak diranez, bera ere, Mentaberri bezela, eliz-gizonen araudi zibillaren alde zin egiña.

«*De tout un peut*» aire edo doiñu ortan egin zuan Monho'k «Oi Betleem» gabon-kanta ezagunaren letra ere, Lafitte'ren liburu ortan, 142 orrialdean, ikus ditekenez.

## **DISTRIKERAT**

*(Aire berean)*

- 1/       Distrikerat,  
          lehen gizonak joan badire  
          distrikerat  
          apezen akusatzerat,  
          zenbait dontzeila izan ere  
          Bardotzetik joan omen dire  
          distrikerat.
  
- 2/       Apaindurik,  
          sartu omen dire Baionan  
          apaindurik,  
          zaia zikinak kendurik,  
          xingolak aintzin-gibeletan,  
          mantelinak galtzar-azpitan,  
          apaindurik.
  
- 3/       Grazioski,  
          kurrak eginik dire sartu  
          grazioski,  
          abokatarekin jarri.  
          Gaxina lehenik mintzatu  
          eta Juana-ttipik lagundu  
          grazioski.

4/        Xarmatu du,  
          jaun hau hirurgarren lagunak  
          xarmatu du  
          eta guzia beretu.  
          Janeton Haristoy lardenak,  
          Harozetxeko haur gaztenak,  
          xarmatu du.

5/        Abokatak,  
          ihardetsi omen diote,  
          abokatak  
          dohazela distrikerat.  
          «Burutan joan behar zirete  
          eta lagunduko zituzte  
          abokatak».

6/        Distriketik  
          artxerik ezin izan dute  
          distriketik.  
          Bainan oraino hargatik  
          apezak sofritzen baituzte,  
          kargudunak heziko tuzte  
          distriketik.

7/        Artxerekin  
          jin izan bazina, Gaxina,  
          artxerekin,  
          edo soldadu tropekin,  
          egina zen zure fortuna,  
          bai eta zure lagunena,  
          artxerekin.

Bardotze'ko erria, Uztaritze'ko barrutikoa omen zan Iraultza-denboran. Izan ere, «barruti» esan genezaioke euskeraz, frantzesez *district* eta gazteleraz *distrito* esaten zaionari. Barrutiko ofizinak, ordea, Baiona'n omen ziran. Ala esaten digu Piarres Lafitte'k bere *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburuan. Esan bearrik ez dago, bertso auek ere liburu ortatik artuak ditugula.

Itxura danez, neskaren batzuk –izenak ere ematen dituzte bertsoak– Baiona'ra joanak omen ziran «apezen akusatzerat».

## ESKANDALA

(Aire huntan: Atzar gaiten, atzar lotarik...)

1/ Eskandala izigarria  
dugu Bardotzen ikusi;  
Mentaberrik dauku herria  
partitu eta nahasi.  
(*Berriz hastetik*).

2/ Orai artean Bardoztarrek  
lege bat zuten segitzen.  
Bainan orai Jainkotiarrek  
bertzela dute pentsatzen.  
*Eskandala izigarria...*

3/ Mentaberrik irakasten du,  
Jesu-Kristok ez bezala,  
apezpiku ez Aita Saindu  
beharrik ez ginukela.  
*Eskandala izigarria...*

- 4/ Elizaren gobernatzeko  
aski dela Mentaberri,  
ergel batzuek erraiteko  
ez da bada harrigarri?  
*Eskandala izigarria...*
- 5/ Nork eman daie sinestea  
aski dela salbatzeko  
Heren Ordenan izaitea  
Mentaberri aintzineko?  
*Eskandala izigarria...*
- 6/ Graziote, oi Graziote,  
Bardozko andre serora,  
erotu zarela diote  
alde bateko aldera.  
Eskandala izigarria:  
saindutzat du Mentaberri,  
enganatu nahiz herria,  
andre serorak ezarri!
- 7/ Oilanda oilaskotaraino  
doha deboziona.  
Hegaztin auk elizaraino  
ikasten dute bidea.  
Eskandala izigarria:  
oilandak elizan kantuz;  
oilasko gazten boz berria  
harmairutik kukurukuz.
- 8/ Jo duenean eguerdik  
dohaz serorategirat,  
altzo pean gerizaturik  
Mentaberri jaunarentzat.  
Eskandala izigarria:  
Mentaberriren zintzurak  
xahutzen tu garbi-garbia  
Bardozko etxe-bazterrak.

- 9/ Ilar xehekin baltsaturik  
Gaxinak ditu apaintzen,  
eta mehenak saltsaturik  
aita-semei zerbitzatzen.  
Eskandala izigarria:  
hegaztinez Tiso bizi,  
zeinak ura eta ogia  
ez bailituzke merezi.
- 10/ Donibaneko bidean  
Tisoren orroitzapena:  
zubi ttipi baten aldean  
gurutze bat emana.  
Eskandala izigarria:  
Tisoren seme Jean hori,  
aspaldi erretor nahia,  
Bardotzen dugu bikari.
- 11/ Semeak aitaren omena  
ez du galtzerat utziko;  
ez Mentaberriren izena  
ez da behin ahantziko.  
Eskandala izigarria  
elizan eman derauku,  
erretor on batez herria  
nahi baitzuen gabetu.
- 12/ Zenbait emakume hitzuntzki  
iñorant urgullutsuak  
ditu lehenik irabazi  
itsu-gidariitsuak.  
Eskandala izigarria:  
gau et'egun hor dabilta  
beretu beharrez herria  
maingu tropa bat tringilka.



- 13/ Ez zaitut zu ez behar egin,  
Paxuko, debot atea (*sic*)  
maingu tringil horien berdin;  
berex da zure partea.  
Eskandala izigarria:  
zalu zabilta hor gaindi  
puntxoinztatzen lege berria  
jende handiz jende handi.
- 14/ Haroxaren andre limatu,  
Heren Ordenako serora,  
ala urrun baita hedatu  
merezia duzun fama.  
Eskandala izigarria:  
debotak oihuz elizan  
Artzain onak erran egia  
Mentaberrik ito zezan.
- 15/ Hortara ziren aintzinetik  
artoski preparatuak,  
Mentaberrik katiximatik  
goiz-mezan gonbidatuak.  
Eskandala izigarria:  
Jaunaren hitzaren plazan,  
errebolta garbi-garbia  
predikatzen du elizan.
- 16/ Elizaren profanatzerat  
disposatzeko sailduki,  
goizetik komuniatzerat  
ditu igortzen debotki.  
Eskandala izigarria:  
mahain saildutik lekora,  
han janik Sainduen ogia,  
dohaz fedez aldatzera.

- 17/ Damu zitzaien aditzea  
aintzineko igandean  
garbiki higanot legea  
eman zela jenden artean.  
Eskandala izigarria:  
Tiso zuten predikari,  
Bardotzeko Luter berria,  
eta ez aditu nahi!
- 18/ Xikiro gizenen joaileak  
ez balitu kondenatzen  
Ebanjelioko legeak,  
hura predikatuko zen.  
Eskandala izigarria:  
xikiro ebaslen plazan,  
Glub berriko ez den guzia  
kondenatzen da elizan.
- 19/ Hori da hori dolorea:  
banda hortako presunak  
ezagutuak izaitea  
diren bezain hobendunak.  
Eskandala izigarria:  
Heren Ordenak Bardotzen  
Elizaren fede garbia  
hasi dauku ganbiatzen.
- 20/ Ministro zaharren doktrinaz  
ez baitziren hauk gustatzen,  
Mentaberriren katiximaz  
dire gozoki bazkatzen.  
Eskandala izigarria:  
katixima ahantzirik,  
Glubeko doktrina berria  
ikasi du Mentaberrik.

- 21/ Nork erran dio ausart horri  
erretor apezpikuak  
bizi zirela alfer gorri  
krimetan pulunpatuak?  
Eskandala izigarria  
aditzea kadiratik  
kalomnial hain latzgarria  
Mentaberriren ahotik!
- 22/ Hainitzak gordeak daudela,  
bertze batzu joan ihesi...  
Bai, zeren zin-egilen gerla  
ez baitezakete sofri.  
Eskandala izigarria!  
Zer nahi du Mentaberrik:  
sasiatu bere egarria  
hekin odola edanik?
- 23/ Zointan zazpi liburutarik  
lunetekin zuk, Paxkosa,  
ikusi duzu Tisok baizik  
ez dezakela konfesa?  
Eskandala izigarria:  
azkenaz goiti Paxkosak,  
ikasirik lege berria,  
juiatzen ditu apezak.
- 24/ Izenda netzake guziak  
zein bere tituluekin.  
Ordean lista hain handiak  
ez lezake plazer egin.  
Eskandala izigarriak  
eman dituzte Bardotzen;  
Tiso baten gezur larriak  
gozoki tuzte iresten.

- 25/ Erretora bere ahotik  
nahi zuten galarazi.  
Bainan hark egiaz bertzerik  
ez diote irakatsi.  
Eskandala izigarria:  
Justizian Mentaberrik  
eman du artzain onegia  
faltsoki akusaturik.
- 26/ Lekukotzat ditu hautatu  
gezurtirik debotenak,  
bainan hauk ez zuzen kondatu  
irakatsi zaizkotenak.  
Eskandala izigarria  
Baionan eman dutena,  
Mentaberriren errabia  
argitan eman duena.
- 27/ Arrosarioak eskuan  
zauden aldiaren beira.  
Nork erran zuken hauk golkoan  
gaixtakeria zutela?  
Eskandala izigarria  
Baionan eman dutena,  
Bardoeko eliza berria  
laidoz estali duena.
- 28/ Gizon galantik ere bazen  
lekukotzat igorririk.  
Ez naiz batere estonatzen  
dakizkidanak jakinik.  
Eskandala izigarria!  
Erran behar dut nor diren,  
has dadin Bardoeko herria  
jenden ongi ezagutzen.

- 29/ Ezin helduz galeretarat  
aita bidean hil bazen,  
Doyenart gaztea, zu harat  
uste dut helduko zaren.  
Eskandala izigarriak  
eman dituzu orotan;  
kurritu dituzun herriak  
mintzo dire paperetan.
- 30/ Ez zaitut, ez, ahortzi behar,  
orai da zure aldia,  
Okil beltz edo Etxezahar  
xartrusetarik jalgia.  
Eskandala izigarriak  
Bordelen eman dituzu.  
Jakin tugu zure berriak;  
kopletan erranen tugu.
- 31/ Pozoindatzaileak direla  
Bordelen xartrus guziak  
orotan banatu duzula  
badire froga garbiak.  
Eskandala izigarria  
Bordele'n eman duzuna,  
gosea eta egarria  
sofri-arazi dautzuna.
- 32/ Kalomnia ez bada hori  
ahal daiteken beltzena!...  
Eman diozu Ordenari  
gizon hiltzailen omena.  
Eskandala izigarria  
orotarat heldu dena,  
hainitz urtez presondegia  
gozarazi darotzuna.

33/ Hunen ondotik mintzatzeko  
nor zen diñe justizian,  
erretor on baten galtzeko  
zenbait hitzen aitzakian?  
Eskandala izigarria:  
debotak dire altxzatu,  
Bardotzen Eliza berria  
behar zutela fundatu.

Bertso-sail luze au ere, aurreko beste oiek bezelaxe, Piarres Lafitte zanaren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1972) artua degu.

Aldi ontan ere, Monho'k gogorki erasotzen dio Mentaberri'ri, onen pauso guztiak salatuz.

Lafitte'ren iritzirako, emen aitatzten diran gertakari guztiak 1791 urtekoak dira. Mentaberri'k zin egin ondotik ere, beren lekua errespetatu baitzitzaien illabete batzutan Delissalde'ri eta Monho'ri Bardotze'ko elizan. Baiña urte bereko Azaroan, zin egindako Sanadon gotzaiak Mentaberri Bardotze'ko erretore izendatu zuanean, eta Etchessahar bikario, Delissalde'k eta Monho'k Bardotze'tik alde egin bear izan zuten. Baita muga pasa ere. Leen ere esan degunez, Delissalde Oiartzun'en jarri zan bizi izaten, eta 1798 urtean-edo il. Monho, berriz, ez da ageri mugaz alde ontako zein erritan bizi izan zan; ezta ere oster mugaz beste aldera noiz itzuli zan.

Lafitte'k «gonbidaturik» idazten du amabosgarren bertsoaren laugarren lerroan. Baiña kopia-tzerakoan uste gabe egindako okerra izango da. Bigarren lerroan «preparatuak» baitago, eta itz onekin puntua edo rima bear baitu. Orregatik, «gonbidatuak» ezarri degu.

## MADAMA BELTZUNZERI

*(Aire huntan: Amodiorik baduzula ez ziautazu iduri)*

- 1/ Euskal herrien edergailu  
Parisetik etorria,  
zer inkontru gaixtoz daukuzu  
doluan utzi herria?  
    Zer bihotz-min!  
    Zu Ernanin!  
Mineta oroz onetsia,  
jin zite zure herrirat  
guzien kontsolatzerat!
  
- 2/ Ernani zuk ihesleku,  
behar ginuen ikusi!  
Nork behar zintuen bidaldu  
zure herritik ihesi?  
    A, kokinak!  
    Gaixtaginak!  
Ez dezakegu paira hori;  
bihur guzue bakea  
eta Mineta maitea.

3/ Azor, beti zure aldean  
dago Mineta jarria;  
eta guk beti bihotzean  
zure min hiragarria.  
Ez dezake  
deusek ere  
zuk utzi duzun hutsa bete.  
Azor bezala gu ere  
Minetari fidel gare.

4/ Meharinen, Azor, ihausi  
egin beharko duk laster;  
adioen eiten has adi  
Espainiako bizkotxer.  
A, oxala,  
hik bezala  
Mineta zain ahal baneza!  
Ez litzaiokek itsusi  
hire koplataileari.

5/ Bertsutan zure aipatzera  
Monho bada atrebitu,  
Emiliak duke hortara  
hertsiki errekeritu.  
Hoben hori  
biek zuri  
nahi ginautzuke aitortu,  
Mineta maiz berriturik  
ahalik hurbilenetik.

Piarres Lafitte'ren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1972) artuak ditugu bost bertso auek.



Oar batean adierazten duanez, Madama Beltzunze au, Meharin'go etxeoandrea omen zan.

Iraultza-denboran, aundizki jendeak iges egin bear izan zuan Frantzia'tik, batzuek Alemania'ra, besteak Suiza edo Italia'ra, besteak Espaiña'ra, bakoi-tzak urbillen zeukan erreinura alegia. Sail ontan ikusten danez, Madama Beltzunze ori mugaz alde ontara pasa eta Ernani'n jarri zan bizi izaten.

## NAZIONEKO BESTA

- 1/ Senperen egin dute besta bat handia;  
deklaratzera noha, guziek guardia:  
Jaun erretorak ditu oro gomiatu,  
Nazioneko besta dute ohoratu.
- 2/ Atso zahar batzuek, ongi apaindurik,  
plazala bildu dira, elgar aditurik.  
Ikusi dutenean han eztela deusik,  
ostatura joan ziren, bihotzak ilunik.
- 3/ Ostatuan sartzian, etxeko jaunari  
atsoek erran diote: «Hots, fite, Bettiri.  
Gaur besta handi dugu, iguzu jatera,  
juan behar dugu gero guziek plazala.»
- 4/ Bazkaiteko denboran batak bertzeari  
oihu egiten zuten: «Hire graziari!  
Bibe Nazionea! –zioten gogotik–.  
Gaztetan eztun orai gu bezalakorik.»
- 5/ Bazkaldu direnian atso gaztetuak,  
kontrapasetan dire hasi zoratuak:  
«Hots, begira huts egin! –zioten atsuek–.  
Dostatu behar dugu gaur hemen guziek.»

- 6/ Dantzatu direnian arbaso zaharrak,  
kanporat ilki dira, husturik sakelak.  
Plazan arribatzian, bisaiaik gorririk,  
mundu guzia zagoen irriz zabaldurik.
  
- 7/ Jaun erretora, berriz, leihorat etorri,  
handik konplimenduka zitzaioten hasi:  
«Hots, ene haurrak, orai hor dantza zaitetze,  
ni ere zuiekilan abia nindaite!»
  
- 8/ Atsoek erreputa jaun erretorari:  
«Zu beharko zaitugu ororen gidari.»  
Ematen da trunkoa aintzin-gidaritzat,  
atso zahar guzien gobernatzaitzat.
  
- 9/ Hasi zenean beraz trunkoa dantzatzen,  
gure atso guziak irriz eman ziren,  
beren esku zimurrak emanik hanketan;  
oro begira zauden besta handi hartan.
  
- 10/ Gure atso gaizoak etziren unatzen,  
beren artzainarekin oro kontent ziren.  
Ordean heien senar gaxoak etxean,  
tupina hutsa zuten batu iluntzean.
  
- 11/ Giza-gaizoak ziren plazalat etorri,  
beren emazten bila, zoroak iduri.  
Jaun erretorak hori ikusi orduko,  
oihu egin zioten baken egiteko:
  
- 12/ «Zuk, Joanes, edan zazu; zuk ere, Domingo,  
ene eskuietarik zenbait arno trago.  
Biba Nazionea egizu zuk, Pello!  
Egun haserratziaik deus eztu balio.

- 13/ Gizon eta emazte, dugun orok edan,  
basoak trinkaturik, omore onean;  
zoazte elgarrekin guziak bakean!»  
Besta akabatu zen hola arratsean.

Bertso auek, gero ere esango degunez, Baiona'ko *Ariel* egunkarian argitaratu omen ziran leenengo aldiz, 1845'eko Otsaillaren 9'an. Eta andik kopiatu omen zituan Francisque Michel'ek, bere *Le Pays Basque* liburuan (Paris, 1857), 252 orri-aldean azaltzeko.

\* \* \*

Liburuxka batean ere argitaratu ziran bertso auek, Baiona'n, 1875 urtean, «*P. Cazals, Imprimeur-Libraire 2, Place du Réduit, 2*». Michel'ek argitaratu bezela oker asko baitituzte, oni kopiatu diogu.

Bertsoak argitaratzeaz gaiñera, itzaurre mamitsu batean argibide jakingarri asko eman ere bai. Bertatik artzen ditugu, orain emen eskeiñiko ditugunak.

Bertso-sail onek, «*Nazioneko Besta*» ez-ezik, beste bi izenburu ere baditu. Frantzesez: *Chansons anti-révolutionnaires contre les prêtres assermentés du Pays Basque*. Eta euskeraz «*Legueac manatu zuen juramendua eguin zuten escaldun aphezen contraco cantuac*».

Izenburu onek argi eta garbi adierazten du bertso auen gaia, eta urrengo saillarentzat ere berdin balio duala esan genezake, batere zalantzarik gabe.

Bertso auek Senpere'ko apaizaren aurka jarriak dira. Jatsu errikoa omen zan eta Salbat Mariturry zeritzana. Baiña *Trunkoa* esaten diote bertsoak, izengoitiaz-edo. Garai artako politika-ixtilluetan

askotxo sartu omen zan, beti ere bere burua Iraultzaren alde nabarmen azalduz.

Eliz-gizonen araudi zibillaren aldeko ziña, 1790 urteko Eguberri-egunean egin zuan, Senpere'ko eliz-zan, meza nagusiaren aurretik.

Bertsoak aitatzen diguten «Nazioneko Besta» ori, Federazioarena edo Konstituzio edo Araudiaren urteurrenarena izan omen diteke, 1791'ean.

Nolanai ere, Mariturry ori kartzelan sartua izan zan Iraultzaren denboran. Baita kanpora aterea ere, Senpere'ko erriak ala eskatu zualako. Andik laister, itzaldi bero bat egin omen zuan araudiaren alde. Leendakari izendatua izan zan, irureun bototik berreun eta berrogei ta amar alde zituala. Ala ere, il zaneko agirian, Erroma'ko Elizarekin adiskidetuta zegoala adierazten da.

Egillea, Uztaritz, Kanbo edo Larresoro inguruan sortutako apaizen bat izan omen diteke. Bertsoak, berriz, 1791 urtearen bukaerakoak.

Itzaurrearen egilleak bertso-sail au eta urrengoa orri txiki batzuetan kopiatuta arkitu omen zituan. Kopia oiek esku berak egiñak ziruditela dio, eta esku urtetsua ain zuzen. Orri oiek gaztelerazko itz batzuk ere bai omen zituan.

Paper oiek, Alexandre Dihinx il zanean eskuratu omen zituan liburuxka orren prestatzailleak, eta Dihinx orri Chaho'ren eskutik etorri omen zitzaizkion.

Leen emandako beste bi argibide ere berari zor dizkiogu: bertso auek Baiona'ko *Ariel* egunkarian argitaratu zirala leenengo aldiz, 1845-II-9'an. Eta Francisque Michel'ek andik artu zituala, bere *Le Pays Basque* libururako.

Argibiderik geien eskeintzeaz gaiñera, bertsoak ondoen ematen duana ere liburuxka ori dala derizkiogu. Fonetismoak ere errespetatu baititu. Orregatik, berari kopiatu diogu, leen ere esan degunez.

Ala ere, zenbait tokitan itzak aldatu edo zuzendu egin ditugu, moldiztegiaren erruz-edo oker zeudela-koan . Onela zion berez liburuxka orrek: 7/2: citçaye; 9/3: bere; eta 10/2: bere; 11/2: bere.

\* \* \*

Bertso auek Haristoy apaiz jaunaren liburuan ere agertu ziran: *Les Paroisses du Pays Basque pendant la periode révolutionnaire (Pau, 1895)*.

Piarres Lafitte'k ere argitara eman zituan bertso auek, bere *Eskualdunen Loretegia - Lehen zatia (1545-1800)* liburuan (Baiona, 1931). Berak nundik zituen adierazteko, onela dio bertsoen aurretik: «...Fr. Michel-en liburu batetarik hartua».Eta bertsoen ondoko oar batean: «*Fr. Michel: Le Pays Basque, p. 253 et sq.*

Urrena, argibide au ematen du: «Neurtitz hautan aipatua den erretora Erreboluzionearen aldekoa zen. Irri egin-arazi zioten jenderi, zeren lodiskoa baitzen dantzan artzeko. Mende hortan behar bezalako apezak ere baziren dantzan ari zirenak; erran gabe doa orduko dantzek ez zutela oraiko dantza harro bezain itsusien eite pikorrik».

Auñamendi Enziklopedia'k ere agertu zituan bertso auek, Literaturari dagokion leenengo liburuan, 1969'an.

Argitaraldi batetik bestera aldaketaren batzuk badira, moldiztegi-okerrren batzuk-eta. Baiña ez dute aitaterik merezi.

## APEZ JURATUAK

- 1/ Kanta dezagun eta boza altxa gora,  
bertsu estranjer batzu detzagun fagora;  
ez nauzu deklaratzeko nor duten autora,  
ala den bikaria ala den erretora.
- 2/ Zu zaitut materia, monsieur Iharasarry,  
Nazioneak fidel zaitu bere zerbitzari;  
nola behatzen diozu gure Elizari,  
trublatua zabilta haren gerizari.
- 3/ Uste duzu lehena duzula burua,  
kasik goberna ere diozula mundua;  
hainitz bolanta duzu, o!, sendimendua,  
utzi duzunaz geroz gure Aita Seindua.
- 4/ Teologian zinen denboraz profesur,  
orduan baitzinduen orotarik agur;  
sujet handiak ere zure ziren beldur,  
argumentaraz geroz ez baitziren segur.
- 5/ Lauda ere zinitzaket, bazinu merezi,  
bainan etsaiak daitzu oro galarazi;  
lehen xismatikoetan zu zinen berezi,  
Aita Seindu maiteari erranik goraintzi.

- 6/ Monsieur Iharasarry, Agerreko apeza,  
bertute gabea da orai zure meza;  
juramentu beltz hori turna bazineza,  
egundaino bezala zinitake preza.
  
- 7/ Zure baitan sar zaite eta eman gogora,  
gisa hortan zoazila leziaren ondora;  
karitatez mintzo da legiaren autora,  
imita dezazula Kanboko erretora.
  
- 8/ Larresoron bikari, monsieur Gorrity,  
hura ere ibili da goiti eta beheiti;  
hark bezala egizu zuk ere prudentki,  
flakotasun handiaz duzula urriki.
  
- 9/ Exhorta zazu buru-arin laguna,  
Azantzako apeza, Sorondo xalduna;  
zuentzat ilundu da argizko eguna,  
legean fermu gauden orok dakiguna.
  
- 10/ Monsieur Iharasarry, aditu dut berria,  
Hiriart'i kita arazi diozula herria;  
baldin hartu izan balu zuk duzun legia,  
baliatuko zangon jaun hari egia.
  
- 11/ Ala finki baituzu egina botua,  
soberanoaren kontra arras gogortua!  
Damurik izan zare mundurat sortua,  
estola, kasolaz Jaunak sakratua.
  
- 12/ Monsieur Mariturry, Senperen erretor,  
zu bezain prest izan da hura ere erorkor.  
Erregeen Erregia ezta, ez, ahantzkor.  
Hala gerta baledi oraino nonbait hor.



- 13/ Zutaz estonutzen naiz, monsieur Duronea,  
horren maite duzunez bada ilunbea.  
Itzul-azu gu gana, o!, desirkundea,  
zuzen nahi baduzu zeruko bidea.
- 14/ Erretretan sar zaite zure lagunekin,  
pobreak sokorrituz zenbait barurekin;  
mundura sortu zinen guti donurekin,  
soberanoa eman da hainitz damurekin.
- 15/ Bihotzez egizue, o, nigar marraska,  
dugun Aita Seindua barne onez besarka;  
hari sumeti zaite joan gabe hasarka,  
Parabisura goazen guziak galtzarka.
- 16/ Bertsu huntan mintzo naiz monsieur Larrondori,  
nola gogortu zaien Senperen orori;  
aristrokek dezagun guziek sokorri,  
zeren juramentura ez baita erori.
- 17/ Bera eskapatu da hainitzen artetik,  
ardi inozenta nola otsoen artetik.  
Legean fermu dago Jesu-Kristo gatik,  
beraz laudagarri da guzien gainetik.
- 18/ Flako, miserablea, non zare, Etxeberry?  
Munduari eragin diozu zenbait irri;  
zure erretoria oraino ezta ageri,  
paperak omen dira urerat erori.

Bertso auek onako liburuxka ontan argitaratu ziran: «*Pièces Historiques de la Période Révolutionnaire en français et en basque, en regard. 2me. fascicule, Chansons, Proclamations, Bayonne. P. Cazals, Imprimeur-Libraire, 2, Place du Réduit, 2, 1875.*

Bertsoak agertzeaz gaiñera, argibide jakingarri asko ematen dizkigu. Liburuxka ortatik artuak dira, guk orain irakurleari eskeiñiko dizkiogunak.

Eliz-gizonen Araudi zibillaren alde ziña egindako sei apaizen aurka jarritako sailla degu. Beraien izenak bertsoak esaten dizkigute: Iharasarri, Gorriti, Sorondo, Mariturri, Duronea eta Etxeberri.

Gorriti'ri buruz, bertsoak diotena besterik ez omen zekien liburuxka orren egilleak.

Sorondo, berriz, bearbada Soraide izango omen zan, Urketako apaiza, ondoren esposatuko zana. Beraren anaia, Beskoitzeko apaiza, etzan juramentua egitera makurtu, eta iltzera kondenatu eta lepoa moztu zioten Baiona'n.

Iharasarri, berriz, Ezpeleta'ko bikari zegoana, oso jakintsua omen zan. Juramentua egin zuan, eta bai ondoren bere zin gaizto ori gaitzetsi jendearen aurrean, 1792'ko Ekainaren 18'an. Espainia'ra iges egin zuan. Baiña 1810'ean Ezpeleta'ko apaiz izendatu zuten. Bere okerraren damutan bizi izan zan beti. 1821'ean il zan. Berari buruz, urrengo saillean eman-go degu berri geiago.

Mariturri'ri buruz, onen aurreko saillean itzegin degu.

Duronea, berriz, Sara'ko apaiza omen zan. Berari buruz ere, urrengo sail batean mintzatuko gera.

Etxeberri batek 1791'eko Otsaillaren 6'an juramentua egin zuala esaten da zenbait paper zaarretan. Azken bertsoak aitatzin digun Etxeberri ori bera izango da. Apaiz izateari ere uko egin zion.

Beste apaiz baten aitamena egiten digu amaseigarren bertsoak: Larrondo. Onek, beste sei oiek ez bezela, Erroma'ko Elizari leial jarraitu zuan, eta bertso auen egilleak eredutzat jartzen du.

Egille ori nor ote degu? Beraren izena ez dakigu.

Baiña «ala den bikaria ala den erretora» deklaratzeko ez dala esaten digu leenengo bertsoak. Ortik apaiza zala atera ote dezakegu? Liburuxka orren egilleak baietz esaten du. Are geiago: euskerari begiratuta, Uztaritz, Kanbo edo Larresoro inguruan sortutakoren bat izango ote dan iruditzen zaiola.

Bertso aukerak ere, Alexandre Dihinx'en eskutik omen zituan berak; Dihinx orrek, berriz, Chaho'renetik.

Zenbait lerrotan, uste gabeko okerrak ziralakotan, zuzenketa txiki batzuk egin ditugu. Dalako liburuxka ortan onela dio: 3/2: gobernuak; 4/4: argumetalaraz; 8/4: flakatasun; 9/3: argizko egia; 9/4: gaude-nek orok.

\* \* \*

Haristoy apaizak ere agertu zituan bertso aukerak bere *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire (Pau, 1895)* liburuan.

Baiña aldaketa asko ditu: 1/4: ala den bikaria ala erretora; 2/1: Zu zaitut materia, jaun Iharasarri; 2/3: Nazioek fidel zaitu zerbitzari; 2/3: nola behatzen duzu gure Elizari; 3/3: hainitz balenta duzu oi sendimandua; 3/4: utzi duzunaz geroz gur'Aita-Saindua; 5/1: zintzaketa; 5/3: lehen xismatikotan; 5/4: Saindu; 6/1: Murde Iharasarry, Agerreko apezka; 7/1: et'eman; 7/2: lezearen; 7/3: alfer egiten baita handik heia gora; 7/4: imita zazu laster Kanboko erretora; 8/1: muziu Gorriti; 8/2: hur'ere ibili da goiti ta beheiti; 9/1: Buru arinekoa baduzu laguna; 9/4: legean fermu gauden orok dakiguna; 10/1: Murde Iharasarri, entzun dut berria; 10/2: Hiriarti duzula hutsarazi herria; 10/3: baldin onetsi balu zuk duzun legia; 10/4: Baliatu zaiola

ken jaun hari egia; 11/2: Jaun Soberanoaren kontra gogortua; 11/4: estol'eta kasolaz Jaunak sakratua; 12/1: Musiu Mariturri, Senperren erretor; 12/2: bertze bat bezain arin hura're erorkor; 12/3: Erregen Erregea ez da, ez, ahanzkor; 13/1: Banuke zertaz harri, Murde Duronea; 13/3: itzul zaite gu gana, har gure fedea; 13/4: zure nahi baduzu zeruko bidea; 14/1: Zure baitan sar zaite zure lagunekin; 14/4: Jainkoari baitiozu hanitz damu egin; 15/1: Bihotzez egizue, oi, nigar marraska; 15/2: dugun Aita Saindua gogotik besarka; 16/1: Bertsu huntan mintzo naiz murde Larrodori; 16/3: leial garen guziek dezagun sokorri; 17/2: ardi gaixoa nola otsoen hortzetik; 17/3: hazkar dago fedean Jesu-Kristo gatik; 17/4: hortaz da laudagarri ororen gainetik; 18/2: duzu; 18/3: zure erretoria nihun ez ageri.

Guk beintzat duda egiten degu aldaketa auek danak erriaren aotik edo burutik sortuak diran. An eta emen, euskera «garbitzearren» eta neurria osatzearen, eskuren bat ibili dan itxurak badira, gure iritzirako.

\* \* \*

J.-B. Etcheberry apaiz jaunak, *Gure Herria* aldizkarian, 1965'eko Ekainean, *Ixtorio Xaharrak* izeneko idazlan batean, sail hontako bost bertso eskeintzen dizkigu: 6, 8, 12, 13 eta 18'garrena, Haristoy'ren liburutik artuta.

## ARTZAIN ARDI-JALEA DANTZARI

Eskualdunen harrigarri,  
Murde Iharasarri,  
Jainkoaren kontra da jarri,  
kontra dio jazarri;  
haren kontra du bihurtu  
harek eman dohaina,  
ardi jatera ohartu  
artaldeko artzaina.

Utzazu,  
sinets nezazu,  
hasi duzun lana,  
ez baduzu goan nahi  
Galtxagorri gana  
tiratzera hazkarki  
jaun hari buztana.

Ezponda,  
Amigot non da?  
Hor deia Domingo,  
bizkar konkor makurra?  
Betiri Gorringo,  
eskura zak Okerra.  
Egin dezan bringo,  
Iharasarri non da?

Hura ere on da  
egiteko arronda  
zuekin batean  
karrika ganean.  
Jauzi, Katalin!  
Jauzi, Pertolin!  
Jauzi orok bardin,  
Galtxagorrirekin!

Itz neurtu auek Duvoisin'en bertso-bildumatik ar-  
tuak ditugu.

Haristoy apaizak ere badakarzki ainbeste aldiz  
aitatutako bere liburuan: *Les Paroisses du Pays Bas-  
que pendant la période révolutionnaire, Pau, Im-  
primerie Vignancour, S. Dufau, Imprimeur, 1895.*

Onek, ordea, kopiatzerakoan lerro batetik beste-  
ra uste gabeen salto eginda-edo, 14 eta 15'garren  
lerroekin bat egiten du, onela idatziz: «tirtzera buz-  
tana». Eta itz neurtu auek agertu dituztenak Haris-  
toy'ren liburutik kopiatu baitituzte, utsegite ori guz-  
tiak daukate.

Emen ere, eliz-gizonen araudi zibilla onartu eta  
zin egindako apaizen aurka ari da bertso-jartzaillea.  
Ain zuzen, bigarren lerroan esaten dan Iharasari  
jaun ori, onen aurreko saillean ere azaldu da.

Duvoisin'ek argibide auek ematen ditu ondotik:  
«*Cette chanson fut chantée et dansée, sur un air de  
Sauts basques, par des jeunes gens, à Espelette, peu de  
jours avant la promulgation du fameux arrêté du 13  
ventose. La colère des représentants tomba sur les  
autorités locales. Duhalde, le maire, et Gorostarsou,  
le juge, furent arrêtés. On trouva sur le bureau de ce  
dernier une copie de la chanson reprouvée. Les pri-  
sonniers, conduits devant le tribunal révolutionnaire  
de Bayonne, furent jugés incontinent, et sans déses-  
parer, conduits sur la place Gramont où leur tête*

*tomba sous la hache, le 24 ventose an II (11 mars 1794).»*

Alegia, frantzesera ulertzen ez dutenentzat: Kanta au Ezpeleta'n kantatu eta dantzatu omen zuten gazte batzuek, euskal dantza-aire batekin, *Ventosa* edo Aizetsu illabeteko 13'ko legea eman baiño zenbait egun leenago. (Lege orrek, Sara'ko, Itsasu'ko eta Azkain'go jendeak beren etxeetatik eta erritik bialtzen zituan.) Agintarien asarrea Ezpeleta'ko agintarien gaiñera erori zan. Alkatea, Duhalde, eta jueza, Gorostarsou, preso artuak izan ziran. Gorostarsou'ren ofizinan kantaren kopia bat arkitu zuten. Biak Baiona'ra eraman eta an iraultzaleen tribunal batek juzkatu zituan. Andik Gramont plazara eraman eta lepoa aizkoraz moztu, 1794'eko Martxoaren 11'an.

Haristoy'ek, gertaera lazgarri auek beste oar batzuekin argitzen ditu:

*«... Ceux d'entre eux (de jeunes gens) qui ne se sauvèrent pas en Espagne furent déportés. Les frères et soeurs Gorostarsou, auteurs présumés, et condamnés d'avance à la guillotine, s'enfuirent par une fenêtre pendant qu'on cernait leur maison.»*

Alegia: Espaiña'ra iges egin etzuten gazteak, norabait erbesteratuak izan zirala. Gorostarsou anai-arrebak, bertsoen egilletzat jotzen zirala eta gillotinaz iltzera kondenatu zituztela. Berak, ordea, guardiak-edo beren etxea inguratzen ari zirala, leiotik iges egin omen zuten.

Bertako jueza Jean Gorostarsou jauna omen zan, eta dalako kanta ori beraren etxean arkitu zuten. Duhalde alkateak, berriz, ezertxo ere ez jakin eta ez omen zuan kanta kantatzea galerazi. Biei, Gorostarsou eta Duhalde'ri, lepoa moztu egin zieten. Orrela bukatu zan parrez asitako drama ori. Argibide oiek,

Duvoisin kapitanarengandik omen zituan Haristoy apaizak.

Oar batean, berriz, onela jarraitzen du jaun onek:

*«Les terroristes de l'endroit appartenaient tous à la classe des gredins, heureusement très peu nombreux alors. Ils firent exception dans l'immense majorité, qui resta honnête et souffrit beaucoup de la part de ces misérables. Ceux-ci espéraient s'emparer des biens de leurs victimes. On signalait parmi eux Amigot, Esponda, Domingo, Betiri, Gorringo. Il y avait aussi des femmes de leur acabit. La plus célèbre fut Okerra, avec ses filles. La chanson leur associe l'abbé Iharasarry, dont on déplorait d'autant plus l'apostasie que c'était un bon sujet...».*

Onelatsu itzuli genezake gutxi gora-beera: gaiztagin oiek arlote batzuk omen ziran, baiña zorionez oso gutxi. Kristau geienak zuzen jarraitu zuten, baiña asko sufritud xixtrin oien aldetik. Beren atzaparretan erortzen ziranen ondasunak arrapatzeko itxaropena omen zuten. Nabarmenenak, Amigot, Ezponda, Domingo eta Betiri Gorringo izan ziran. Emakume batzuk ere bai omen zebiltzan taldean. Famatuenak, Okerra eta beraren alabak. Kantak Iharasarry apaizarekin alkartzen ditu. Au apaiz ona izanik, penagarriagoa gertatu omen zan berak ere okerbideetik jozte...

Baiña zuzenbidera biurtu omen zan. Haristoy'k ere esaten du ori. Baita ere J.-B. Etcheberry'k, *Gure Herria* aldizkarian, 1965'eko Ekaineko zenbakian, *Ixtorio Xaharrak* izeneko idazlanean. Onela dio:

«Aitor dezagun balentria ttikia dela bertsu zombaiten lerrokatzea eta gordeka, kidekoen artean, kantatzea.

Bainan bertzelako sanfretarekin, plaza betean eta egun argiz, kantuz eta dantzan, muxikoen airean, Ezpeletako gaztek adiarazi zituzten kobla hauk».



Ondoren bertso edo itz neurtu auek eskeintzen dizkigu, batere aldaketarik gabe, urrena onela jarraitzeko:

«Eman dezagun oraino horiek guziak pegeseria batzu direla, funtsgabeko kalapita batzu, haize-kolpe batek eremaiten dituen itz eta lumen idurikoak...

Ez uste izan hortan gelditu zirela Eskualdun fededunak. Osoki begietan hartuak zituzten, futcho, orduko «apez arnegatuak».

Hala nola, Mugerren eta Itsasun elizako atetan dilindan ezarri zituzten beren herriko erretor, «profeta faltsuen» ix-tupazko itxurak, uste gabeko akili-marroen herronkan!

Kanboko elizan predeikuan ari zelarik Sorhainde-Chaldun deitu erretora, hantxet xutitu zen eta mintzatu –nolako hix-tuan!– Graxiana Jauretxe Lekunberriko alaba:

– Aski eta sobera badugu aditurik trixte horren solasetarik. Goazen denak kanporat.

Eta hartan akabatu zen elizkizuna, eliza tanpez hustu baitzen.

Segur naiz balio duela Ezpeletako gertakarien ere aipatzea.

Sekulako patxadan Diharassarry erretor berriak predeiku-alkitik erran zuen igande batez:

– Apezpiku ohiak kendu podoreak eman nauzki gobernioak. Beraz zuen erretora naiz.

Eta ordu berean, hitzetik hortzerat, eliza-zolatik emazte mintzo samin batek eskuaraz:

– Ai, malurusa!

Hori aski izan zen, apez hitzun aipatuaren ixil-arazteko.

Ezpaitzen hortan gelditzekoa Marie Gorostarsou emazte bipila.

Handik zortzi egunen buruan erretor berria haur baten bateatzerat apailatu zen eta erran zuelarik eliza-liburuan kausitzen den galdea:

– Haurra, zer galdetzen duzu?

– Hik galdua dukana! –dio ihardesten pilar baten gibeletik betiko kontrestatzaileak!

Eta apezak furia gorrian:

– Eta nik zer galdu dut?

– Haur horrek galdegiten duena: fedea!

Horiek guziak hola, atsegin berezi batekin erranen dugu Diharasarry osoki konbertitu zela.

Dudarik ezta barnea beti ala dela makur-bidetan ibiltzen denean.

Ekainaren hemezortzian 1792-eko urtean, nigarra begietan, ezko-xirioa eskuetan, Diharasarry igan zen predeiku-alkirat eta barkamendu galdatu zuen Jainkoari eta fededuneri bere arnegu eta etsenplu tzarrentzat.

Gero, erretor-etxean sartu gabe, ihes egin zuen Espainiarat buruz, Zuraide eta Senpereko oihanetan barna...».

Urrena, zin egin etzuten apaizen gora-beerak kontatzen dizkigu Etcheberry jaunak:

«Eta orai ditzagun aipa beren eginbidetan fidel eta tieso agertu ziren Jainkoaren minixtroak.

Andana handienak ihes egin zuen Espainiarat, beren nahitarat hautatuz desterru, atzerriak, kontzientziaren ez kolpatzeko.

A segur!, pairamen handiak jasan zituzten. Nundik izan zitaken bertzela? Bihotzmin karratsekin oroitzen ziren beren familiez, bai eta ere zeruko bidean finkatzerat bermatuak ziren arima guziez.

Mugaz haಿಂದian kausitu zituzten ainitz jende on, bihotzdun, urrikaltzerat ekarriak... bainan ere «koko-beltz» batzu arras ozarrak eta bertzen garizumaz beren ihautiria egiten zutenak.

Bertzalde etzituen batere lagundu Carlos IV Espainiako erregeak. Hura baitzen gizon bat nagia bezein ezdeusa –norat iguzki eta harat buruzki– bere itzuliko soraio batzuek kraixturutik zerabilatena nora-nahiko sehi bat bezala.

Horien guzien gatik, daukat hemen berean gelditu ziren apez onek mereximendu gehiago zutela oraino.

Beren biziaren arriskuan, ixil-gordeka emaiten zuten meza, haurrak bateatzen, ezkontzak benedikatzen, xahar eta erieri sakramenduak eremaiten.

Hastapenean bizi ziren Eskual-Herriko xara eta harroka-ziloetan, geroxago girstino fermu bihotzdun batzuen etxetan.

Atseginekin emanen ditugu hemen gisa hortako etxe zonbeiten izenak: Aierran, Errejentenia eta Borda; Kanbon, Le-

kunberria eta Maiteenia; Heletan, Semelarria, Etxeberria, Garra-Jauregia eta oroz gainetik, naski aipagarriena, Ibarren Garakotxia, Mixel Garikoits gure eskualdun Sainduaren etx'ondoa.»

Ortik aurrera, apaiz oien gertaerak kontatzen dizkigu Etcheberry jaunak. Merezi luteke kopiatu eta emen ere ezartzea, baiña geiegi luzatuko giñake.

\* \* \*

Kanta au, osorik ez bada ere, eta aitatzetik merezi ez duten zenbait aldaketarekin, Aita Lino Akeso-lo'k ere badakar bere *Bertsolaritza Pernando Ametzetarraren garaian* (Egan, 1969, VII-XII).

## SARAKO IHESLIARREN KANTUA

- 1/ «Nora zoazte hor gaindi, ardi nahasiak?»  
«Espainiara goazi, doi-doia biziak.  
Jauna, ahantz bekitzu guk egin gaizkiak,  
gosez hil ez gaitezen mendian guziak.»
- 2/ Emazteak ikaran senarra bilatzen,  
gizonak emaztea orori galdatzen.  
«Zer egin zare, ama? Non da ene aita?»  
Horra urragarri den haur gaixoen pleinta.
- 3/ Etxelarren heldu-ta, oi, gure lastima!  
Lurrean sartu zuken nork bere arima.  
Nihork ez du leihorrik, ez norat arrima,  
zenbat baikira bizi, hainbertze bitima!
- 4/ Koko beltzak ez gaitu segur urrikari,  
xixpaz eskaintzen dio frantses gizonari.  
Eskualdunak bakarrik demagu janari,  
ongi eginaz, Jauna, zuk emozu sari.
- 5/ Gure galgarri haizen, Martin Dulunia,  
bizirik jan darokuk bular-haragia!  
Ator eta ikusak gure agonia,  
hire baitara Jaunak sar dezan argia.

- 6/ Zeruetako Jauna, barka, barka guri,  
eta guri bezala egizu orori.  
Barka diozute zure etsaieri,  
halaber nahi dugu guk egin gureri.
- 7/ Bainan bihur gaitzatzu gure elizara,  
ikus dezagun orok, ikus gure Sara;  
begiz ikus detzagun batzuk haurrideak,  
zenbaitek burasoak et'orok etxeak.
- 8/ Ez bazaitzu komeni mirakulu hori,  
indar emozu, otoi, gure bihotzari,  
zure nahi saindura dadien sumeti,  
zure manamenduak iduk detzan beti.

Beste bertso-sail au ere Haristoy apaiz jaunaren liburuan arkitu degu: *Les Paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire*, Pabe'n, 1895.

Bostgarren bertsoaren leenengo lerroan aitazen dan Martin Dulunia ori nor dan adierazteko, onela esaten du Haristoy jaunak oar batean:

«*Curé constitutionnel de Sare: son nom était Duronea; mais les basques l'appelaient Dulunia*». Alegia: zin egindako apaiz bat zala. Beraren abizena Duronea zala, baiña euskaldunak *Dulunia* esaten ziotela.

Bertsoen frantzes itzulpena eman ondoren, onela jarraitzen du:

«*Tels étaient les hommes que l'arrête de Pinet et de Cavaignac traitaient «d'infâmes, de scélérats, de monstres, indignes d'être français». Leurs sentiments chrétiens qui étaient ceux de tous les basques expliquent la cruelle hostilité des révolutionnaires; ils expliquent aussi les chants satiriques de nos confesseurs de la foi contre les rares prêtres assermentés et les sans-culottes du pays...*».

Alegia, olakoak zirala, Pinet eta Cavaignac agin-

tarien iritiz gaizto eta monstroo batzuk ziranak eta frantzes izatea ere merezi etzuten aiek. Beren kristau sentipenak, euskaldun guztienak garai artan, garbi adierazten digute, iraultzailleak zergatik ainbestera-ño gorrotatzen zituzten. Baita ere zin egindako apai-zen aurka eta Euskalerriko iraultzailleen isekaz jarri-tako bertsoak zergatik sortu ziran...

\* \* \*

Duvoisin'en bilduman ere arkitu ditugu bertso auek, batere aldaketarik gabe.

*Gure Herria* aldizkarian, 1924'eko Abuztuan, X. X. firmatzen duan batek bialduta-edo, bertso-sail au agertu zan, aldaketa auekin: 3/: ez norat anima; 6/3: barkatu diozute.

Doiñua ere badu. Onako au:

“No-rat zoazte hor gaindi,  
ar-di na-ha-si-ak?”

“Es-pai-ni-a-ra goa-zi  
doi-doi-a bi-zi-ak.”

Jau-na, a - hantz be - ki - tzu  
guk e - gin gaiz - ki - ak, go -  
sez hil ez gai - te - zen,  
men - di - an, gu - zi - ak.

*Auñamendi* Enziklopediak, Literaturari dagokion leenengo tomoan, sail ontako bost bertso argitaratu zituan: 1, 2, 4, 5 eta 6'garrena.

Oar batean esaten duanez, berak beste oni kopiatu dio: *Fagoaga J.: Domingo Garat, defensor del Bilzar, Buenos Aires, 1951.*

Aldaketa bakarra: seigarren bertsoaren laugarren bertsoan *guzeri* idazten dute. Izan ere, Haristoy jaunak *guzeri* ipintzen du. Baiña ondoko frantzes itzulpenean *aux nôtres* esaten du. Dударик ez da, beraz, *gureri* bear duala.

\* \* \*

Euskerazaintza edo Euskeraren Erri Akademiak ere argitara arazi zituan bertso auek *El Diario Vasco* egunkarian, 1981'eko Otsaillaren 14'ean.

Bi aldaketa ditu onek: 4/4: on egin horrez, Jauna, Zuk emozu sari; eta 6/3: barkatu diozute zure etsaieri.

\* \* \*

Gauzak nola gertatu ziran jakin naiko du noski irakurleak. Ori dana oso zeatz kontatzen du Haristoy apaiz jaunak arestian aitaturako liburuan. Berari artzen dizkio argibideak eta esakizunak Goikomendi'tar Iñaki dalako batek, 1946 urteko *Gure Almanaka*'n, «Sara-tik Buchenwald-erat» izeneko idazlan batean. Baiña euskeraz idazten baitu, komeni diran pasarteak oni artzen dizkiogu. Onela dio:

«... 1793-a zen. Frantzia gaizki zoazin aferak. Jendea, asaldaturik, ogi eta odol-keta zabilan marrumaka. Orduan zuten Luis hamaseigarrenari lepoa moztu. Orduan zituzten elizak hetsi edo apez-faltsuen eskuetan eman. Gure arbasoek azkar zaukaten beren fedea, eta ziren errotik erregeri eta Jainkoari atxikiak. Eskualdunek axola guti zuten Pinet eta Cavaignac frantses buruzagi higuingarriez: mezarik gabe egon baino nahiago zuten, beren biziaren irriskuan, mendiz haraindirat jua kristau-eginbidearen betetzeko. Gaztigua ez zen urrun...

1793'ko hazilaren 25'an, Donibane Lohitzuneko kontseiluak hartu zuen xedea Sarako herriaren suntsitzeko, hango jendeak errepublikano epelak zirelakoan, eta Españolekin sobera adixkide.

1794-ko epailaren 3-an Pinet eta Cavaignac jaunek onartu zuten galde hori, eta eman manu izigarri hau:

1-ik: Sarako, Itsasuko eta Azkaingo herri galduetako jendeak beren etxetarik kenduak izanen dira, eta eremanak Frantzia barnerat bederen mugatik 80 kilometretan harat.

2-ik: Ezpeletako, Ainoako eta Zuraideko jendeak mehatxu beraren azpian daude, erakusten balin-badute dremendeneko



herra Erreboluzionearentzat edo atxikimendurik ttipiena Españolentzat.

Gezur asko ibili da lege ahalge-egingarri horien gainean. Zonbaitek diote Itsasun 42 soldado desertatu zirelakotz mintzatu zirela hoin garrarki frantses buruzagiak. Bainan jauntxo horiek ahanzten dute eskapatze hori 1794-ko otsailaren 20-an gertatu zela, eta ordukotz legea moldatua zela hiru hilabete hartan Donibaneko kontseiluaz.

Zer hoben zuten beraz Saratarrek eta hauzo-erritarrek? Erran dugun bezala denbora heietako Eskualdunak ziren errotik erregetiarrak eta giristinoak. Beren sinestea nahi zuten zaindu Frantziatik heldu zitzaizkoten kutsu guzietarik...

Beste batzuek diote Saratarrek hartze zutela lege dorpe hori: ez ote ziren bada Españolekin adox? Gezurra! 250 Saratar gazte beren nahitarat altxatu ziren Españoler ihardokitzeko!

Estakuruek utzi behar dute bazterrerat! Gaitz izigarri horien iturburua bilatu behar da Jaingo-legearen alderat Saratarrek erakusten zuten leialtasunean. Ez zuten giristino suhar horiek behinere onartu Duronea deitu apez arnegatua: trufazko kantuez bai ederki estali...

Duronea Uztaritzeko buruzagiaren anaia baitzen, mendeak ez zuen luzatu behar...

Beraz epailaren 3-ko lege hori agertu zelarik, Eskualdun andana bat eskapatu zen berehala mugaz-haraindirat. Sinisteari uko egin baino nahiago zituzten beren ontasun guziak galdu...

Iheslari dohakabeak etsai batzu bezala hartu zituzten kastellano beltzek: eskualdunek aldiz ongi-etorrikeri beroena egin zioten...

Bainan ez ziren denak ihesari eman, kontzientziak bakean izanez ez baitzuten uste zeri beha zauden. Egun batez soldado andana batek jauzi egin zuen Sararen gainerat. Inomine santian gizon, emazte, zahar, haur, denak pilaka metatuak izan ziren Sarako elizan: Sarak orduan 2.400 arima zituen. Gaua elizako harri otzaren gainean iragan zuten.

Argitu zenean herriz-herri ibilarazi zituzten. Zaintzalek nahi zuten jendea dohakabe horien kontra asaldarazi gero guzien hiltzeko estakuruaren ukaiteko: bainan denak deabalde-tan. Reynon deitu idazleak dio 150 idi-orga bazoazila lerroz-lerro eremaiten ahal zituzten mublekin.

Bigarren egunean Senpererat ereman zituzten, herri hortan

tirokatu behar zituztela: gero Donibanerat itsaso-zola jastarazi behar ziotela. Ziburu-n iragan zituzten bi gau eta egun bat elizan eta etxe-azpi batean metaturik. Han egon ziren goseak amikaturik edo loak aurtikirik, denak nahas-mahas. Norbaitek urrikari balin-bazituen, burua itzuli artean garbitua zen.

Polliki-polliki presuner andana gaitza bildu zen. Baziren Saratik, Azkainetik, Ainoatik, Biriaturik, Itsasotik, Kanbotik, Ezpeletatik, Zuraidetik, Larresorotik, Makeatik, Lekornetik eta Luhosotik. Gehienek soineko arropak zituzten bakarrik, ez baitzioten astirik eman deusen hartzeko...

Baionarat heldu zirelarik, multzoka ezarri zituzten, berexiz senarra emaztearen ganik eta alaba bere amaren ganik. Orduan ziren orduan nigarrak eta marraskak... Azken aldikotz besarkatu zuten elgar, zaintzaler berer nigarrak jauzaraziz: eta gero, bihotza zauritan, lotu ziren atzerriko bide dorpeari...

Ez dugu erraite beharrik zer oinazen erdian egin zen bidaia hori. Ainitz emazte amatu ziren orgen gainean: bertze batzuek bularra eman nahi beren haurñoari, eta gosearekin esnerik ez... Xabarrak nun nahi erortzen beren azken indarrak bidean ereinik. Zenbait nexkato gaztek, ohorean truk, ogi puxka bat erosi zuten zaintzaler, ahuleziaz hiltzerat zoan amaren salbatzeko: bainan gehienek nahiago izan zuten hil garbi egoiteko...

Azkenean heldu ziren kaskoin-herrirat. Han andana barre-atu zituzten. Ondres-en 106, Capbreton-en 229, St-Vincent-de-Tyrosse-n 300, etc... Han behar zuten egon zombait ilabetez, arrotzen erdian, lana eta gosea lagun.

Bihotzminak eroturik, haur batzu lasterka zabiltzan herriz-herri beren burasoak hatzeman nahiz, eta ardurenean hil-herrian aurkitzen zituzten. Alabainan erioak zilo ainitz egiten zuen dohakabe horien artean eta bereziki emazteetan. Sorlekurat itzultzearekin nork lorestatuko ditu heien hobiak? Nor belaunikatuko da heien kurutzearen itzalean, nigar xorta batekin otoitzño baten Jainkoari eskaintzeko? Eskual-Herritik urrun hiltzea, zer heriotze tristea!...

1.400 jendeak bizia galdu zuten atzerrian: 600 Saratarrek beren hezurak hedatu zituzten kaskoin eremuetan, heien 250 anai Frantziarentzat gerlan ari zirelarik!...

Denboraren buruan odol-ixurtzeaz ase ziren frantses buruzagiak. Baudot eta Garrau jaunek eman zuten Sortherrirat itzultzeko baimena 1794-ko buruilaren 30-an. Izoard-ek lege bera egin zuen mendiz bertzaldeko iheslariarentzat 1795-ko epailaren 18-an.

Goseteak eta bihotzminek bizirik utzi zituztenak itzuli ziren beraz Eskual-Herrirat. Bainan zer zuten orduan ikusi? Etxeak erdi-erreak, lurrak laparrez hartuak: ohe, alki, tresna, jateko, hazi, denak falta. Jende basa bere arroka ziloan bezain behardun ziren dohakabeak... Eta hilak ez ageri...».

\* \* \*

Otto Piarre idazleak, berriz, bere *1789-ko aizeak* idazlan luze eta sakonean, *Bortizkeria Euskal-Herrian* izeneko atalean, *Herria* aldizkarian, 1987'ko abenduaren 17 eta 24'ean, gertaera auetaz onela dio:

«Sara-ko herriak fama txarra zuen Parisen: Saratarrak jaun haundi zirela, Españolekin sobera barne zirela eta holako... Donibane-Lohizuneko iraultzaren zaintzalek galdegin zuten goragokoeri Saratarren barreatzea: laborariak Lot-et-Garonne departemendurat, mariñelak itsas-untzietarat, ofizialeak Gers departemendurat, emazteak, haurrak eta xaharrak bil-toki berezi batzuetarat, belarrak eta lastoak armadarentzat, muble eta tresnak eliza batzuetarat. Pinet eta Cavaignac bi iraultzale, debrua berekin dutenak. Donibane-Lohizuneko beren kidekoeri gatzigatzen dute segur egin gogo dutenaren baimena gogotik emaiten dutela, nahi dutena egin dezaten, Euskaldunak ez dituela beldurrak baizik hezten ahal, sobera atxikiak direla beren sinesteri, alderdikariak direla, Españolek bilduak dituztela.

1794-eko otsailaren 18-tik 20-erateko gauean Itsasutik Espainiarat ihes joan ziren 47 soldado euskaldun, Ithurralde kapitainaren meneko mugaren zaintzen ezarriak zituztenak. Orduan izan ziren Euskal-Herriak ikusi dituen egun beltzenak. Martxoaren 3-an jin zen Pariseko aldetik manua Sara, Itsasu eta Azkaine xinaurri-mukurru batzu balire bezala barreatzeko. Uztaritzeko aintzindari bat, Daguerressar mugertarra, joan zen erran herrietarat soldado segur andana azkar batekin, lagun zituela Hiriart, Monduteguy eta Doyhambehete aintzindariak. 2400 Saratar (3000 ere erran dute zonbeitek) bildu zituzten eta Itsasuar, Azkaindarrekin ezarri preso 150 orgen

bete. Senperen gaindi, Donibane-Lohizunerat ereman zituzten alimaleko hotzarekin. Uste zuten Donibane-Lohizundarrak asaldatuko zirela, harrika hasiko zirela, bainan, oihu eta xixtu batzu izan baziren ere, hortan utzi zituzten orgak beren bidean joaiterat.

Gau bat eta bi egun iragan zituzten gure presunerrek Ziburuko elizan eta bertze barne haundi batean. Ziburun ere, karrikaz karrika ibili zituzten eta gero ereman Baionarat buruz. Pausu, Ezpeleta, Kanbo, Luhoso, Makea, Lekorne herrietan ere preso hartu zituzten jende frango eta bertekin ezarri Uztaritze, Ahurti, Arrangoitze, Milafranga herrietako eta Baionako elizetan, hotzean, laidoka. Aintzina barreatuko dituzte Landesetarat eta bertze departemendu batzuetarat.

Lehenik Landesetan Sain-Geours-de-Maremne, Tyrosse, Soustons, Saint-Lon, Akize eta bertze herri batzuetako elizetan ezartzen dituzte hetsirik gure presuner euskaldunak eta gero aintzina eremanen dituzte Biarnorat, Hautes-Pyrénées, Gers, Lot-et-Garonne departemenduetarat.

Gizonak berexten dituzte emaztetarik, haurrak ait'ametarik. Preso hartu dituztelarik zituzten soinekoak baizik ez dituzte jaunzteko, zonbeit oinetakorik gabe dira. Gaixo enbalier, itsu eta bertzeak!! Bihotz-gabek ez diote laguntza berezirik emaiten!! Emazte gaixo batzuek ere beren haurra mundurat eman behar dute, ahal duten bezala, denen erdian. Eta euskara baizik ez jakin, zaintzalek ez dakiten euskara. Zaintzale horietan badira salbaiak, hala nola Ahurtin, bazterreko jendeak pasatzean eman ogi puska batzu aurtikitzekeo manua emaiten dute presuner dohakaberi. Zonbeit haur badira eskapatuak, herriz herri, elizaz eliza dabiltzanak beren ait-amen ondotik. Eritasunez, ahuleziaz eta nork daki nola, ainitz hiltzen dira.

Zonbat dira elizetan preso? Nork daki? Zonbeiten berri badakizu xuxen: Capbreton: 229 gizon; Tyrosse: 300 emazte; Ondres: 106 emazte... Adinez 3 urtetarik 88 urtetarainokoak.

Bortz ilabetez egonen dira preso, 1600 hilen dira, 600 Saratarrak».

\* \* \*

España'ra aldegindakoei barkazioa eman zien

1795'eko epailaren 18'ko lege ori euskeraz ere eman zan. Oso-osorik dakar Haristoy jaunak, ainbeste al-diz aitatu degun bere liburuan. Garai artako ortografiaz antxe arkituko du irakurleak. Ona emen gure gaurko idazkeraz:

«Libertatea, Higoalitatea edo Bardintasuna.

Pyrinea gora eta apalak daitzoten mendietako bi departimenduetarat egorria den Populuaren Errepresentak.

Uztarizeko distriken nazioneko agent edo eragile denaren ahoz eta bertze bide partikularrez izan ditugun berriez jakintsun girelakotz distrikt huntako hainitz habitantek, Errepublikako lurak husturik, Espainiarat ihes egin dutela, izitu direlakotz iazko ventosa edo ilabete haizetsua daitzonaren hamairurean eman zen ordenantza batez, zeinak bere herriak hutsaraziz, egortzen baitzituen barne herrietarat, edo bereziki ordena horren exekutatzean, aintzinean eta ondoan erabili diren manerez:

Orai kausitzen diren herrien urruntasunak, bere herrietarik izaiteko gaitzasunak, lengoia edo hizkuntzaren diferentziak, eia heier tokatzen zankoten eta heietaraino hedatzen ote den nivosaren erran nahi da ilabete elurtsuaren hogoi eta bian eman izan den legearen fagorea dudatziak edo ez segur izanak, debekatzen dituela bere herrietarat bihurtzetik heldu den ilabetearen leheneko lege horrek emaiten duen bezala;

Ikusi dugun ondoan presentatua izatu zaikun petizione baten azpian Uztaritzeko distriko administracioneak eman duen abisua,

Konsideraturik Uztaritzeko distriketik izialduraz ihes egin duten habitantak bere etxietarat ez bihurtzea heldu dela nivosaren edo ilabete elurtsuaren hogoi eta bieko legeaz jakintsun ez izatetik;

Hainitz gaitz dela izialduraz Espainian barna bere buruak desterratu dituzten Eskualdun horientzat Nazioneko bilkuia-  
ren dekret ungi-egile eta samurren ezagutzea, ez Frantza ez Española aditzen ez dituztelakotz, bere ahaidetarik eta adiskidetarik berririk ezin izan dezaketelakotz,

Frantzes Nazionea bere etsaien alderat bererat jeneros eta barkakor agertzen den denboran, justu iduritu behar zaiola persekuzionearen eta heriotzearen ihesi joan direner bere herrietarat bere ofizioetako lanez baliatzerat bihurrarazteko moienen eta bidien idekitzea eta errextia:

Arrestatua edo erregelatua da: nivosaren edo elur ilabetearen bieko legeak heldu den ilabete jerminal daitzonaren lehenaraino baizen emaiten ez zioten terminoa edo epea luzatua dela prairial edo belar ilabetea daitzonaren leheneraino Uztaritzeko distrikeko lurretarik ihesi joan ziren habitant eta lege horren bidez bihur zitezkenen fagoretan.

Arresta edo ordena hau izanen da Eskuararat itzulia eta behar den leku guzietarat hedatua eta guzietan publikatua edo afixatua.

Uztaritzeko distrikeko ajent nazionalak edo eragileak du karga hunen exekutaraztekoa.

Baionan egina, ventosaren edo haize ilabetearen hogoi eta zortzian eta Frantziako Errepublika bata, ezin partitua edo zatikatua denaren hirugarren urtean.

Populuaren Errepresenta, Sinatua: Auguste Izoard.»

\* \* \*

Noizbait ere, saratarrak-eta izan zuten beren errira eta etxeetara itzultzeko baimena. Onela dio Otto Piarre idazleak, leen aitaturako *1789-ko haizeak* idazlanean, *Ordainbide eta Ordaintze* atalean, *Herria* aldizkarian, 1988'ko Uztailaren 7'an:

«Robespierre hil eta, haren kidekoak buruak apal dabilta. Nagusi berriek «Thermidotarrak» dute izena eta horiek ere aintzina ari dira begietan dituztenen hezten eta ere hiltzen, bainan jende xehea deskantsutan da. Eskual-Herritik kanpo preso joanak diren euskaldunek ukaiten dute beren etxerarat itzultzeko baimena, apezek eta aitoren-semek salbu, beti bizi baita oraino horien herra, ez baitira Thermidotarrak ere bildotxak. Badira bertze ttipikeria batzu ere han hemenka, hala nola Norlaas herriz auzapezak ez ditu han preso ziren euskaldunak etxerat joaiterat utzi nahi, han egin dituzten gastuak pagatu ez dituzteno. Zerekin pagatuko dituzte, gaizok? Biarresak dira Morlaas hortan.

Herrirat itzultzen diren euskaldunek beren etxeak hustuak hatxemaiten dituzte, ainhitzek lurean, laborantxako tresnak eta denak norapeit joanak. Martin Dithurbide, Sara-ko auzapeza eta 33 etxeko-jaun joaiten dira behar den lekurat jauki-

tzerat. Hitzemana zaiote galtze guziak ordainduak izanen direla. Nork egiazki zer galdu duen erran beharko dute Garat, Dassance, Courtelarre eta Halsouet lau gizonen aitzinean. Ez dituzte ez galdegin guziak ukanen eta ez berehala, bainan Frantziako buruzagi berriaz eztitzen ari dira iduriz».

## GARATEK ERREGERI HILTZEKO ARRASTA IRAKURTU ONDOAN

Zori gaixto egin zela hunelako hautua,  
ala ni kausitzen banaiz ongi urrikitua,  
musto baten ohoretan bertsuak moldaturik  
eta lapurtarren bozak harentzat galdaturik!

Bertso bakarra oraingo ontan. Berau ere, Piarres Lafitte'ren *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1792) artua. Bertso bakarra, baiña asko esaten duana.

Garat gazteena Justizia-Ministroa izendatu zuan Danton'ek 1792'an. Orregatik, bere botua artarako eman ez bazuan ere, beraren gain gelditu zan Luis XVI erregeri iltzera kondenatua zala jakin araztea.

Ortatik Monho'ren asarrea, Garat dalako orri «musto» deitzeraiño.

Monho'k, gaiñera, Garaten alde bozak eskatuak zituan, bertsoaren laugarren lerroak dionez, bertso-sail baten bidez. Bertso oiek leenago argitaratuak ditugu liburu ontan.

Erregek iru eguneko epea eta apaiz bat eskatu zituan, bere anima prestatzeko. Bai Garat'ek ere Iraultzako agintariengandik ori lortu ere. 1793'ko Ilibeltzaren 21'e an moztu zioten erregeri lepoa.



## «APEZAK ETA NOBLIAK...»

1/ Apezak eta nobliak  
erresumatik joan zaiku erdiak;<sup>1</sup>  
beren nahi gabeak  
eta ezinbertzeak  
penetratuiak dira guziak,  
bitorian nahiz jarri,  
bere parrak pasaturik,<sup>2</sup>  
gerla emanik Frantziari.

2/ Comte d'Artois bere anaiarekin,  
esperantza handia du harekin.  
Orai dugun guardia  
galdu gabe bitoria  
aski dugu prest egoitia.  
Bitorian plazeria  
behar du izan Frantzian,  
jarri gabe nehoren azpian.

---

1. Guk uste, «zaizku» bearko luke emen.

2. Ontan, berriz, «beren» bear du, dudarik gabe.

- 3/ Korona guziak izanikan ere,  
jaunak, ez dugu axola batere.  
Giren xipi handiak,  
zaharrak eta gaztiak,  
altxatuko gira guziak.  
Aristokraten gira nausi,  
aristokraten kontra beti,  
eskolaturen tugu ederki.
- 4/ Frantziako ordre ederrak,  
ederra eta dira fierrak.  
Orai soldado guziak  
dira abertituiak  
aristokraten ezagutzeko,  
batailetan behatzeko,  
heier kondu emaitako,  
faltarik badute hiltzeko.
- 5/ Frantziako lege berria,  
lege garbi parerik gabia.  
Gure etsai handiak  
orai dira benzutuiak;  
galdu'ituzte indar guziak  
noizbait edo behin-behin  
jaun horien ohoriak  
orai finitu dira guziak.
- 6/ Heien titulu ederrak eta  
pribileio parerik gabiak  
orai finitu guziak.  
Oi, zoin heien tristeziak!  
Jaunak, bardin gira guziak,  
geiago kanbiorik  
handi-mandi diferentik  
ez dugu sofrituko engoitik.

7/ Ez da deus estonagarriagorik:  
aristokratek duten fantesia  
jarri nahiz plazerian  
bitoriaren erdian,  
guzientzat nausi Frantzian.  
Ez dira aski gizon abil  
jartzekotzat gure nausi;  
orobat dute engoitik etsi.

10/ Gure kontra jaun horiek  
sekursik aski ez dute izanen.  
Beharko dute pairatu,  
nahi gabeak sofritu;  
alabainan ez da progotxu;  
balukete borondate.  
Alabainan ezin berik,  
hortarik peritu behar dute.

Bertso auek, A. Apat Etxebarne'k, Aingeru Irigaray jauna zanak alegia, atera zituan argitara, *Diario de Navarra* egunkarian, 1975'eko Maiatzaren 16'an.

Aurretik argibide auek ematen ditu: «Baxe-Nafarroa eta Lapurdiko kaieretik artutako olerki horiekin dugu artikulo hontan segitzen. Oraiko aldian, 1789 urteko Erreboluzione garaieko koblak dakarzkigu, argitaratu gabeak oraino, eta gorrien aldekoak. Gero, hauen kontrakoak sartuko ditugu, denetatik baititu Dassance-ren kaier zahar eta baliotsu hunek».

Bertsoen zenbakiak 7'tik 10'eraño salto bat egingen dute. Ori zergatik dan, onela adierazten du Irigaray jaunak: «*Les 8, 9, 11 & 12 manquent du papier trop usé et déchiré* dio kaierak; ... kobla horiek uts egingen dutela, papera zaartua eta autsia dagoelakotz».

\* \* \*

Bertso auek, apaizen eta aundizkien aurka jarriak dira. Geienak iges egin dutela dio. Alde egite orrezaz leen ere zerbait itzegin degu.

Irugarren bertsoak onela dio:

Korona guziak izanikan ere,  
jaunak, ez dugu axola batere...

Orren esan-naia auxe da, gure iritzirako: Luis XVI'garren erregeari 1793'ko Ilbeltzaren 21'e an gillotinarene bidez lepoa moztu zioten. Orduan, Europa'ko nazio guziak, edo geienak beintzat, erreinuak edo «koronak» izanik, gerra jo zioten Frantzia'ri. Baiña bertsolariak dionez, iraultzailleak ez dira bildur, aiei danai arpegi emateko. Erregea il ondoko bertsoak ditugu, beraz.

Bigarren bertsoak Comte de Artois eta bere anaia aitatzen dizkigu. Biak Frantzia'ko errege izango ziran denborarekin. Artois'ko Kondea zeritzana, Karlos X'garrena izenarekin, 1824'etik 1830'era. Eta anaia, Probentza'ko Kondea, 1814'etik 1824'era. Biak ere, Iraultza asi zanean, iges egin zuten Frantzia'tik atzerrira, eta andik azpi-lanean asi Iraultzaren aurka. Beren anai Luis XVI'garrena gillotinatu zutenean, bere burua «*regente*» izendatu zuan Probentza'ko kondea dalako orrek, bere illoba Luis XVII'garrenaren ordezkotza egiteko. Ori dana gogoan edukiko zuan bertsolariak, bigarren bertso ori moldatzean.

## NAHASMENDUAREN ONDOAN

- 1/ Frantsesak oroit gaiten iragan denborez,  
zoin gure herrietan pasatu desordez,  
Jourdan infamiaz eta Robespierrez,  
nola pesta egiten zuten inozent odolez.
- 2/ Robespierrek zuien deliberatu,  
bakarrik behar zuiela tronuiari paratu;  
berantegi bederen zuten deskubritu,  
bertzenaz nahi zuen Frantzia oro galdu.
- 3/ Robespierre hori zuten aitzindari,  
lagunak bazituen herri orotarik;  
denbora hartan etzen hek bezalakorik,  
gaiztoek brillatzen zuten ona preso emanik.
- 4/ Terroreko denboran fier zenetarik,  
orai ez dut aditzen espantu handirik;  
Denontzatzeko ez dute klubetan indarrik,  
etxe zokuetan daude begiak ilunik.
- 5/ Terroristez jendiak orok oroitzeko,  
duda gabe badugu arrazoina frango;  
kausa izan dirade malur orotako,  
gure aita ama ahaiden galarazteko.

- 6/ Oroitzen nizenian denbora hetaz,  
orai ere hasten zaut bihotza marraskaz.  
Zenbat inozent ezta herri hautan eskas,  
galdu izan direnak terroristen faltaz?
- 7/ Preso egon gaixoez orai niz mintzatzen,  
gogoeta onik baitzuten hek ere egiten:  
denbora tristezia zineten pasatzen,  
gillotinat zineten ardura oroitzen.
- 8/ Denbora hartan etzen bertze berririk,  
arrastazionez eta gillotinat baizik.  
Gaiztoak kanpoan zabiltzan buruiak gorarik,  
eta justuiak barnian bihotzak tristerik.
- 9/ Pinet errepresentant traidore ederra,  
maluruski jin hintzen armada huntara,  
jende onest guzien galaraztera,  
eta zerbait zutenen arrobatzera.
- 10/ Pinet-ek denbora onik hemen pasatu du,  
Baiona eta Lapurdi ditu ruinatatu,  
Probentziatik ere bi million joan tu,  
hala ere guziekin fin gaizto egin du.
- 11/ Eskerrak eman zagun zeruko Jainkoari,  
denbora krudel hura baitu sanjarazi;  
gaiztoak kargutarik ditu kenarazi,  
eta ordainen dako justuak ezarri.
- 12/ Robespierren eta Pinet-en dako  
sala eder bat badago bertze munduko:  
leku frango omen da kontra-dantzako,  
Galtza-gorri prest dago soinuia joiteko.

Bertso-sail au, Piarres Lafitte'k argitara atera

zuan, bere *Eskualdunen Loretegia, Lehen zatia (1545-1800)* liburuan, Baionan, 1931'ean.

Berak nundik eskuratu zuan adierazteko, onela dio: «...paper zahar batzuetan Lekornen bildua».

Bi zuzenketa egin ditugu, eta biak bertso-lerro berean. Onela idazten du Lafitte'k laugarren bertsoaren irugarren lerroa: *Donontzatzeko ez dute dupetan indarrik*. Ondoren aitatuko degun Irigarai jaunak, berriz, beste onela: *denontzatzeko ez dute Clubetan indarrik*. Onela obeto dagoala garbi dago noski.

*Auñamendi* Enziklopediak ere agertu zituan bertso auk, Literaturari dagokion leenengo tomoan, 1969'an. Lafitte'k bezelaxe agertu ere.

A. Apat-Etxebarne'k, Aingeru Irigarai zanak alegia, *Diario de Navarra* egunkarian argitaratu zituan bertso auk, 1975'eko Garagarrillaren 12'an, aldaketa aukin: 2/4: berzala nahi zuyen Frantzia oro galdu; 3/4: onak; 4/4: zokoetan daude begiak ilunik; 7/3: denborak tristezia zizutzen pasatzen; 8/4: eta presitiak barnean bihotzak tristerik; 12/4: Galtzagorri auzoan soinua yoiteko.

\* \* \*

«Terroreko denbora» da bertso auk gogora arazi nai digutena. 1793'ko Iraillean asi ziran bertsolariak aiatzen dizkigun ilketak –gillotinaren bidez noski– eta beste bidegabekeri oiek danak.

Robespierre zan garai artan Frantzia'ko buru egiten zuana. Asanblean –Biltzarrean alegia– zituan etsiak garbitu asmoak artu zituan, bera agintari bakarra gelditzeko. Baiña besteak aurrea artu zioten eta presondegira sartu. Baita gillotinaz lepoa moztu

ere, 1794'eko Uztaillaren 27'an. Orduantxe bukatu zan «Terroreko denbora» ori.

Paris'ko Gobernuak bere ordezkariak bialtzen ziztuan ara eta onera. Robespierre'ren lagunak esaten die irugarren bertsoak. Frantzesez *représentants* esaten baitzitzaien, «Pinet errerepresentant» esaten dio bederatzigarren bertsoak Baiona'koari. «Jourdan infamia» ere oietakoa izango zan.



## ORROITZAPENAK

*(Sur la marche du Régiment de Perche)*

- 1/ Mundu hunen hastapenetik  
gure egunetaraino,  
Kain infamearen ganik  
ez da jautsi Pinet baino  
munstro itsusiagorik,  
Robespierre eta Jourdan  
gizonen etsaiez landan;  
ez Frantzian, ez Europan  
hain fama gaixtoagorik.
  
- 2/ Robespierre'k Pinet horri:  
«Gu gaituk nausi Frantzian.  
Flakoenen espantagarri  
manutuz egun guzian  
zenbait heriotze berri,  
jenderik aberatsenak,  
utziz bere ontasunak,  
diru ezin eremanak,  
joanen dituk ihesi.»

- 3/ Presondegirik ilunenak  
izan dire hautatuak.  
Handik lekora gillotinak  
ditu egotzi buruak,  
milion inozentanak,  
konplitu gabe arrola;  
oraino bortz ehun mila  
pikatu behar zirela  
eman ziren ordenak.
- 4/ Eskasturik presondegiak  
hanbat jenderen sartzeko,  
elizak eta jauregiak,  
komentuak azkeneko,  
bete zituen guziak  
haurrez eta emakumez,  
apez eta birjinez,  
nahi zituen bitimez,  
tiranoen errabiak.
- 5/ Erran zuten haste-hastetik  
ez zutela utzi behar  
Frantziako lurretan xutik,  
zela gazte edo zahar,  
batere aristokratik.  
Itzal horren kontra gerlan  
kokin guziak armetan  
ziren bazter guzietan  
altxatu ordu danik.
- 6/ Gazteluak zituzten sutan  
kutsu gaixtotik garbitu;  
hetako jendeak ezpatan  
aristokratzat pasatu  
edo urkatu lanternan.  
Azkenekotz gillotinak,  
ez ezpatak, ez lanternak,  
ezin akabatuz lanak,  
mitralla zen hautatu.

- 7/ Bazter guzietan baziren  
Robespierren lagunak.  
Azkenaz goiti Donibanen<sup>1</sup>  
herritarrak, eskaldunak,  
harekin bat egin ziren,  
Pineten esku-makillak,  
arrogatzaile abillak,  
orai aski haur umillak  
iduri duten arren.
- 8/ Erran komuna den bezala  
ezpataz jotzen duena  
ezpataz perituko dela,  
berantegi hatzemana  
Robespierre kruela  
gillotinan da finatu.  
Ez ziteken hanbat damu,  
lagun hainitz izan balu,  
akaba zadin gerla.
- 9/ Azkeneko haize ezti bat  
sortu da Orientetik;  
hark untzia portu onerat  
ekarri dauku salborik.  
Eigun penen ahanzterat.  
Gure jelos den guzia,  
gora mintzatu nahia,  
zarpan emanik mihia  
badoake zokorat.

---

1. Donibane-Lohitzune.

10/ Alferretan tuzte eginen  
zokotan egin ahalak.  
Traidoreen hatzak Parisen  
Kontsularen sentinelak  
hasi ditu ezagutzen.  
Ez bazuten ere uste,  
terroristei bere parte  
kario gostako zaizte  
maxina infernalak.

11/ Bakea laster ein baladi  
kanpoan tugun etsaiekin,  
barneko etsaien temari  
baginakike zer egin.  
Damurik ez da zilegi,  
gardatuz bardintasuna,  
legetan den zaharrena,  
berek egin daukutena  
bihurtuz bakotxari.

12/ Ordu da egin dezon leku  
tristeziak gozoari.  
Nigar karatsak baditugu  
aski luzaro ixuri.  
Denbora da ganbiatu:  
terroristak kargutarik  
apartatuak jadanik,  
begitarteak ilunik  
doluan dire sartu.

13/ Orroit zaitezte, lapurtarrak,  
zenbat duzuen sofritu;  
baldin terroristei indarrak  
ez balitzaizkote kendu,  
sekulan zuen nigarrak  
ez zirela xukatuko.  
Gauza horren frogatzeko  
ez dut urrun joan beharko,  
badaki bat bederak.

Piarres Lafitte zanaren *Poèmes historiques des basques (1749-1821)* liburutik (Baiona, 1972) artuak bertso aukeratuak ere.

Leenengo bertsoak orduko iru agintari aitatzek dituzte: Robespierre, Pinet eta Jourdan, bidegabekeri eta eriotz asko eragin zituztenak. Aien agindupean jende guztia bildurrez aidean bizi izan zuten.

Baiña Robespierre'k ere bazituan etsaiak eta, lehen ere esan degunez, 1794'ean atxitu eta gillotinatzen lepoa moztu zioten berari ere. Orduan asi ziran gauzak paketzen eta ezitzen.

## D'ESTAING JAUN KONTEAREN LAUDORIOAK

- 1/ Gure solasak beitez d'Estaing jaun konteaz,  
eskadren aintzindari parerik gabeaz;  
erresuma guzian bedi aipatua,  
ez bedi gutienik gutaz laudatua.
- 2/ Zuk gerla-gizonetan, o d'Estaing noblea,  
daramazu, segur da, zuzenki lorea;  
etorkiz zare jausten puruenetarik,  
Frantzia diren etxe zaharrenetarik.
- 3/ Maiz zure arbasoak dire seinalatu,  
Frantziako koroa dute sustengatu.  
Zonbat ere odolak baitzaitu goratzen,  
zure bihotzak zaitu hobeki bistatzen.
- 4/ Beharrik zaituela Luisek hautatu,  
aintzindaritasunaz, jauna, fagoratu,  
zer ez du irabazi zutan kondatzeaz,  
bere intres miñenak zuri fidatzeaz?
- 5/ Zenbat angeles untzi duzun eskuratu,  
eman tiroka sutan eta ondoratu?  
Kar handirekin zare urez gudukatzen,  
frantzes bandera duzu ohorez betetzen.

- 6/ Itsasoan bezala zare leihorrean,  
supean seinalatzen premia denean;  
guzietan guzia zare guzizkoa,  
oi! nun kausi bertze bat zu bezalakoa?
- 7/ Gure bazter urrunak tutzu indarztatu,  
etsaien eskutarik ungi begiratu;  
ez da hortan guzia: konkesta berriak  
egin izan ditutzu progotxagarriak.
- 8/ Granada duzu hartu gabaren minean,  
zeroni zinelarik tropen aintzinean;  
zu behar ahal zinen hola agertzeko,  
hanbat animorekin hartaz jabetzeko.
- 9/ Ez uzteko Granada frantzesei hartzerat,  
Byron da lehiatu haren laguntzerat.  
Angeles suhar huni zer zaio gertatu?  
Bereak harturik da ihes abiatu.
- 10/ Byron'ek eman dio usain granada'ri,  
ausikirik ez dio eman fruitu horri;  
karratsegia zaio naski iduritu,  
hala ezta baitu d'Estaing'ek aurkitu.
- 11/ Angelesak ditugu ikaran sartuak,  
ikusteaz frantzesak horren nausituak.  
Itsasoko errege zioten zirela,  
egun ikas bezate mintzatzen bertzela.
- 12/ Gerlate huntaz dire minki orroituko,  
bere irla maiteak dituzte galduko;  
Angeleterraz beraz ez dut ihardesten,  
frantzesak, españolak, han badire jausten.

- 13/ O d'Estaing, erresuma izan da tristatu,  
entzunik zintuztela bi tiroz kolpatu.  
Orai zu sendatzeak gaitu konsolatzen,  
fagore huntaz dugu zerua laudatzen.
- 14/ Zure beharra badu oraino Frantziak,  
ni gisa mintzo dire frantzes on guziak.  
*De profundis*'en orde gure elizetan  
*Te Deum* da erranen leku guzietan.
- 15/ Nazione superra, etsai mutiria,  
ez duk zeren kantatu aurten biktoria;  
Frantziako erregek hau eskolatuko,  
eskola saria duk ungi pagatuko.

Amabost bertso auek Paris'tik ditugu, Frantzia'ko Liburutegi Nazionaletik. Eskuz idatzita dau-de. Aurretik onela dio:

«*Chanson basque chantée dans les villages qui bordent l'Océan, depuis Bayonne jusqu'à Béhobie et à l'embouchure de la Bidasoa*».

Kanta au itxas-ertzeko errixketan kantatzen dala, asi Baiona'tik eta Bidasoa ibairaiño.

\* \* \*

Francisque Michel'ek, bere *Le Pays Basque* liburuan (Paris, 1857), bertso auek ere argitara eman zituan.

Aurretik argibide jakingarri batzuk eskeintzen dizkio irakurleari: d'Estaing konte oni eriotz-pena eman ziotela 1794 urtean; kanta au, Beltzunze'ko bizkontearen kantaren antzera egiña dala; ta abar.

Berak bertso auek nundik eskuratu zituan adie-



razteko, onela dio: «*Pour que la justice le soit, je dois déclarer que je suis redevable de cette pièce à M. Andant, inspecteur primaire de l'arrondissement de Mont-de-Marsan, et à M. Fourcade, qui remplit les mêmes fonctions à Bayonne, et que c'est d'après ces deux copies que M. le vicomte de Belsunce a établi le texte avec l'orthographe qui lui es propre*».

Liburutegi Nazionaleko esku-idatziak ez du egi-ilea nor zan esaten. Utsune ori Michel'ek betetzen digu, bertsoen izenburua onela emanez: «*D'Estaing jaun contearen laudorioak, J.Larregui, Bassussarrico erretorac, moldatuac*».

Michel'ek, moldiztegi-okor batzuk baditu bertsoetan, Oiek ez ditugu emen aitatu. Baiña aldaketak batzuk ere baditu. Onako aukerak dira: 4/3: zutaz; 5/1: Cembat Angles untze; 5/2: eman tiroca, sutan ere ondoratu?; 7/2: escuetaric; 7/4: progotchugarriac; 8/4: alimurekin; 9/1: Francesi; 9/3: Angles; 11/1: Anglesac dituzu; 11/2: ikhustez Francesac hortaz nausituac; 12/3: Angleterraz beraz; 15/3: ez duc zeren kantatzen.

\* \* \*

*Herria* astekariak ere agertu zituan bertso aukerak, 1975'ko uztaillaren 10'ean.

Aldaketak: 5/1: Zenbat untzi angeles; 5/2: eman tiroka, sutan ere ondoratu; 7/2: etsai-eskuetarik; 7/4: progotxugarriak; 8/4: alimurekin; 10/4: nola ezta baitu d'Estaingek aurkitu; 11/1: ditutzu; 11/2: ikustez Frantsesak hortaz nausituak; 15/2: ez duk ez zeren kanta aurten bitoria.

Bertsoen aurretik d'Estaing kontearen eta Larregi erretoraren berri ematen digu:

«*Nor zen Larreguy?*»

Bernard Larreguy Donibane Lohizundarra zen, 1721-ean sortua, 1746-an apeztua. Ez dakigu nun zertan eman zituen ondoko 18 urteak. Gero Uztaritzeko erretor kausitzen dugu (1764-1772), Basusarriko (1772-1783) eta Aiherrako (1783-1793). Erreboluzioeak ihes igorri zuen mugaz haindirat eta hego-euskal-herri batean hil zen 72 urtetan.

Apez argitua zen. Paper batzu utzi ditu euskal-ixtorio xaharrari dagozkionak. Bi liburutan ager arazi du *Testamen zaharreko eta berriko historia* (1775-1777). Bertzalde bertsu egile a zen.

Hemen, hain xuxen haren kantu bat ezartzen dugu Valery Giscard d'Estaing Presidentaren arbaso famatu baten ohoretan ontua.

*Nor zen Estaing-eko kondea?*

Charles-Henri Estaing-eko kondea 1729-an sortu zen Ravel-eko jauregian. Armadan sarturik, oinezkoen kolonel gisa Indietarat joan zen, hango kolonia frantsesak anglesen kontra begiratzeko. Nagusitu zitzaizen ederki Gondelur, Fort-David eta Sumatran; bainan Madras'eko setioan (1759) anglesek hartu zuten eta Frantzia garraitua izan zen. Luis XVI-garrenak mendekioz Ameriketako kolonia anglesak nahi ukan zituen bere gaintzen lagundu. 1778-an, amiral-orde izendaturik, d'Estaing-ek jo zuen Amerikako gerlarat, bi ugartez jabetu zen (St.-Vincent eta Grenade) eta Byron amiral anglesea garraitu zuen. Erreboluzioeko ideien aldekoa zen eta 1792-an amiral izendatu zuten; bainan, aitoren seme eta aberatsa zelakotz, handik bi urteren buruan lepoa moztu zioten.

Larreguy apezak Amerikako gerlatik landa laudatu zuelarik, ez zuen pentsatzen jaun kondea erregeren etsai bilakatuko zela, ez eta hain trixteki hilen».

Bertsoak d'Estaing kondea artean bizi zalarik jarriak diran ezkerro, eta 1794'ean lepoa moztu baitzioten, urte au baiño leenagokoak ditugu.

*Herria* astekariaren berri-emalea nor dan ez da esaten. Firmarik gabeko idazlana baita. Baiña Piarres Lafitte zana izango da, dudarik gabe.

## «VANDEA-KO PARTIA...»

- 1/ Vandea'ko partia  
hain da pozoindatia,  
debruz poseditia,  
bizpairur urte huntan  
beti gitu xerkatu.  
Harek orai pagatu,  
bi mila gizon galdu,  
galtza gabeak garaitu.
  
- 2/ Itsas bazter dorpia  
Vanesse hiri aldea,  
nobliek nahi gabea,  
Lorient'i eta Nantes'i  
hura da bien erdia.  
Emigrant urgulutsua,  
iretsi nahiz mundua,  
orai hiz odolstatua.

- 4/ Angelesa, hik ere  
behar duk bat orai ere,  
samurtuko bahiz ere.  
Frantzia'ren kontra hiz  
aspaldian beti ere.  
Goardia emak hargatik  
gillotinaren azpitik,  
berria duk zorrotzirik.
- 8/ Soldaduak berririk,  
Hazparneko herritik,  
patria honetarik,  
español kokoaren kontra  
heldu gira gogotik,  
musketak bandaturik,  
sabreak zorrotzirik,  
eginen dugu erditik.
- 11/ Berri bat dugu aditu:  
behar girela sanjatu,  
Itxasu'rat partitu;  
mendietarik behar dugula  
Espainia oro hartu,  
zilarra multzora bildu,  
urreak sakelan sartu,  
señorak gillotinatu.

Bertso auek ere, A.Apat-Etxebarne'k, Aingeru Irigaray jauna zanak alegia, argitaratu zituan, *Diario de Navarra* egunkarian, 1975'eko maiatzaren 16'an.

Bertsoen zenbakiak olaxe daude egunkari ortan ere, Irigaray jaunak jarri bezelaxe, alegia. Jaun orrek egun eta toki berean argitaratutako beste bertso-sail batean ere zenbaki batzuk falta dira, eta ori zenbait bertsoen utsunea dagoelako omen da. Orixe izango degu emen ere.

Aurretik argibide au ematen du Irigaray zanak: «Kobla hau Vendée deitu eskualdeko eta bretoinen kontrakoa da, haiek Iraulketa gorria bortizki gudu-katu zutelakotz».

1792'ko abuztuan altxa zan Vendée lurraldeko jendea Iraultzaren aurka. Gerra latza jo zion Frantzia'ko Errepublikari, baiña garaitua izan zan, eta 1795'ean ostera pakea egin, Hoche jeneralaren bitartez. Leenengo bertsoak gerra ortaz itzegiten digu.

Leenengo bertso orrek berak, *galtza gabeak* aita-tzen dizkigu. Frantzesez, «*sans-culottes*». Orixe izan zan aundikiak iraultzaleei jarri zieten izengoitia. Aiek, izan ere, *culottes* izeneko galtza-mota erabili oi zuten, gerritik belauperaiño irixten zana. Iraultzaleak, berriz, *pantalon* izenekoa jazten zuten, gerritik txorkatillaraiño jeixten zana. Orregatik *sans-culottes* edo *galtza gabeak* ziran; aundikiak erabiltzen zuten galtza-mota gabeak, alegia.

Bigarren bertsoak aitatzen dituan Vanesse (be-rez, Vannes), Lorient eta Nantes iriak, Frantzia'ko sartaldean daude, itxas-ertzean, Vendée'ko gerra ori gertatu zan lurraldeetan.

Laugarren zenbakia daukan bertsoak, inglesen kontra itzegiten du. Ingalaterra'k ere gerra jo baitzion Frantzia'ri, beste Europa'ko erreinu askok bezela, iraultzaleak Luis XVI'garrena gillotinatatu zutenean.

Zortzigarren zenbakia daukan bertsoa, berriz, es-pañolen kontra mintzatzen da. Españia ere etsai baitzuen Frantzia'k.

\* \* \*

Vendée'ko gerra orri buruz onela dio Otto Pia-

rrek, bere 1789-ko haizeak liburuan, *Vendée-ko hiltzeka* izeneko atalean:

«Vendéeko jendea eta bereziki «*Chouans*» deituak erregearen eta apezten alde altxatu ziren. Hatxeman zituzten gerlako tresna guziak ebatsi zituzten, bainan berdin sarde ukaldika ere arizan ziren Errepublikako soldadoen kontra joka. Vendeetarrek ere elgarren arteko bekaizgo batzuek galdu zituzten gehienik.

Azken gerlan (1940-45) alemanek hil duten frantses judio baino vendeetar gehiago hil zuten Frantziako errepublikano gaztek herra itsu berarekin. Huna 1793-ko hazilaren leheneko manu bat: «mandil horien alde diren hiriak errotik botatu behar dira».

Soldado aintzindarixka batek dio: «Hatxemaiten ditugun guziak garbituko ditugu tiroka, izan dituen kolpatuak, eritegietan, presondegietan».

Bertze batek manatzen du: «Etxe eta etxalde guziak errezkitzue».

Bertze batek: «Baditake baden horien artean nor edo nor gure alde, hil denak».

François Westermann izan bitziko jeneralak erraiten du: «Ez da gehiago Vendee-rik. Hila da bere emazte eta haurrekin gure ezpataren kolpetarik. Savenay-ko aintziretan ito da. Haurrak lehertu ditut ene zaldiaren zangopetan, xehatu emazteak ez dezaten gehiago haurrik ukan, ez dut nehor preso altxatu, denak hil ditut. Alimaleko hil metak badira bide bazterretan».

Nantes hirian, Carrier delako batek presunerrak aldian ehun eta berrehun tirokatzen zituen. Luzegi zela hola eta hilen usainak eritasunak emanen zituztela, bertze joko bat asmatu zuen. Presunerrak elgarri estekatzen zituen birazka eta untzi xabal batzuetan ezartzen, Loire ibaiaren erdirat ereman eta han urerat botatzen, ito ziten. Lehen untzian 90 apez ezarri zituen eta heien ondotik bi mila hurbil vendeetar urerat bota zituen.

Zorigaitzez Vendee alde ez zen bakarra izan nun frantsesen arteko herrak hil zuen norbeit. Lyon, Provence, Corse aldetan ere izan ziren herraren hilak; Avignon hirian Brune marexal famatua, Tolosa hirian Ramel jenerala.

Konduak egin ditzagun: nunbeit han 600.000 frantses hil zituzten bertze frantses batzuek eta beti libertatearen estakuruan.

Napoleon ez omen zen hortaz kexu, aski haur sortuko zela galtze horien ahantzazteko!!! Ikusi zuena ikusi zuen».

\* \* \*

Bertso auek silaben kontua ez dute ondo gordezten, batez ere laugarren lerroan. Baiña arazo ori alde bat utzi ezkerro, irakurlea bereala oartuko da bertso-mota au «Ai ori begi ederra» kantarena dala. Edo-ta «Ikusten duzu goizean» kantarena. Onek puntu guztiak berdin egiten dituala, eta besteak ez; ori dute alde bakarra.

Oso oker ez bagaude beintzat, bertso-mota au aurreneko aldiz karlisten leenengo gerrateko (1833-1839) kanta batean azaltzen zan orain artean: «Orra nun dan Urnieta» asten dan bertso-saillean, ain zuzen. Baiña Vendée'ko gerra-denborako (1792-1795) kanta au ere bertso-mota ortan moldatua da. Guk uste baiño zaarragoa degu, beraz, bertso-mota eder ori.

**KONBENTZIOKO GERRA  
BERTSOTAN**





**«LAPURDI, BASA-NAFARRE,  
ZUBEROA GUREKI...»**

- 1/ Lapurdi, Basa-Nafarre, Zuberoa gureki,  
gerlarat joan behar gira guziak elgarreki,  
Madrilleko plazaraino, guziak lerroz lerro,  
kantatzen dugularik: «Han bego frantzes a libro».
- 2/ Armadetan bestak handi, etsaia dantzan ari,  
Frantzia'ko nazionia ororen soñulari.  
Pompak joiten atabala, artilleriak xirula:  
españolak eginen du heiekin karmañola.
- 3/ Frantzesak eta españolak egun eta bizian  
elgarreki konpontzian ukanen dik aski lan:  
gisa hortan, zer bizi modu izan behar zeruian?  
Frantzesak ez titek nahiko español hilen artian.
- 4/ Donibanen apez batek kantu hauk eman ditu,  
eskual herrietan kantatzen behar ditugu aditu;  
Frantzia'ko erregeren dire laudorioetan,  
eskualdunen ohoretan, español en laidoetan.

Bertso auk, Francisque Michel'en «*Le Pays Basque*» liburuan (1857) argitaratu ziran. Argibide auk ematen ditu aurretik: «*relative à l'entrée des Français*

*dans ce pays sous la République, respire un enthousiasme remarquable chez un prêtre».*

Alegia, beren errepublika-denboran frantzesak Espaiña'n egin zuten sarrerari buruzko bertsoak dirala, eta bero xamarrak ez ote diran, apaiz batek jarriak izateko. Egillea nor dan azken bertsoak esaten baitigu, Donibane Lohizune'koa edo Garazi'koa dan argitzen ez badigu ere.

Guda orri *Guerra de la Convención* esaten zaio gatzeleraz, eta 1793 urtean asi zan. Frantzia'ko iraultzaleak Luis XVI'garrenari lepoa moztu ziotenean, 1793'ko ilbeltzaren 21'ean, zenbait erreinuk, Espaiña tarteko zala, gerra jo baitzioten Frantzia'ri.

Leenengo urtean, 1793'an, espainiolak eraso jo eta Frantzia'n sartu ziran, Kataluña aldetik batez ere. Baiña urrengo bi urteetan frantzesak eraso eta asko aurreratu ziran, Donosti, Gasteiz eta Bilbo ere artu baitzituzten.

Frantzia'k izan ere, Europa geien-geiena aurka baitzuen, zerbait berri asmatu bear izan zuen ainbeste etsairi arpegi emateko. Lege bat eman zuan 1793'ko abuztuaren 23'an, beste iñun artean egiten etzana egiteko. Alegia, armak artzeko adiñean zeuden frantzes guztiak armetara deitu eta nazio guztia militarizatu. Onela dio Otto Piarre'k, bere *1789-ko haizeak* idazlan luzean, *Denak gerlari* izeneko atalean:

«...Frantziako deputatuek oihu egiten dute Frantzia guztiak xutitu behar duela etsaiari buru egiteko eta Frantziako lurren zaintzeko. Oihu berean orok azkarrarena egiten dute, baina nola altxa aski soldado? Lege berri bat egiten dute eta huna zer dion: gazteak dira joanen gerlarat. Gizon ezkonduak gerlako tresnen egiten eta gerlatokietarat heltzen ariko dira. Gizon, zaldi, tresna, jateko eta denak lehenik gerlako. Emazteak ariko dira soldadoen jauntzi berezien egiten eta soldado kolpatuen artatzen kolpatuegietan. Haurrak ariko dira oihal urratzen trapu egiteko. Adinetakoak elgarretaratuko dira herriko plazetan, bihotzen altxatzeko erregen kontra eta errepublikaren alde.

18 urtetarik hogoi ta bortz urtetarainoko gazteak, ezkonduak ez direnak, joanen dira lehenik. Behar dituzten argitasunak eta gerlako tresnak ukan orduko joan behar dute. Hogoi ta bortz urtetarik hogoi ta hamar urtetarainokoek Frantzia barnea behar dute zaindu nahaskerietarik. 39 urtetarik 60 urte artinokoek ere buruzagien eskuko egon behar dute behar-ordu zerbeit gertatzen deneko.

1794-an badira miliun bat eta 200 mila soldado, egundaino izan den baino ainhitz gehiago...».

Ala, iñork uste etzuana gertatu zan: Frantzia nagusi ateratzea. Garaipen ori, lege berri orri eskerrak lortu zuan.

Bigarren bertsoan «karmañola» aitatzen da. Ori zer dan, Espasa iztegiak onela adierazten du:

*«Canto popularailable que entonaban los revolucionarios de París durante la primera república, formando grandes grupos alrededor de los árboles de la libertad y junto a los altares de la patria. El origen de esta canción se remonta al año 1792 y fue compuesta, según parece, después de la toma del castillo de las Tullerías en 10 de Agosto del referido año. Los autores de la letra y de la música no son conocidos. Constaba la canción de varias estrofas con estribillo alusivas a sucesos de la revolución, sobre todo a la toma de las tullerías...»*

*La Carmañola, además de cantarse, se bailaba. Se daban vueltas con lentitud durante la estrofa, golpeando fuertemente con el pie en el suelo; en el estribillo el movimiento se aceleraba tanto como se podía».*

Beraz, bonbak atabala eta artilleriak xirula jotzen zutelarik, espagnolak ere frantzes iraultzaleen dantza berri ori dantzatu bearko zutela.

Laugarren bertsoak, kantu auek Frantzia'ko erregeren goralpenetan jarriak dirala esaten digu. Leenengo lepoa moztu eta gero goraldtu? Ez degu ulertzen, errege ori agintari bezela artu bear ez bada beintzat.

\* \* \*

Paris'ko Liburutegi Nazionalean lau bertso auetatik iru arkitu ditugu, eskuz idatzita: 2, 1 eta 3'garrena, orden ortan. Aldaketak: 2/3: punpak; 3/2: elgarreki konpontzeko izanen dik aski lan.

Bertsoen ondoren, argibide jakingarri au: «*Ce chant date de l'époque ou Charles IV, roi d'Espagne, ayant déclaré la guerre à la Convention, les Basques coururent aux armes à la voix de Harispe et formèrent sous le nom de chasseurs des Montagnes plusieurs petits corps dont l'intrépidité révéla aux Espagnols et aux Français les descendants des Cantabres*».

Alegia: bertso auek, Karlos IV, España'ko erregeak Frantzia'ri eman zion gerra-denboran jarriak dirala. Euskaldunak orduan, Harispe jeneralaren deiari erantzunez, armak artu zituztela eta talde txiki batzuk osatu, «mendietako eiztariak» izenarekin, bai espagnolai eta bai frantzesai antziñako kantaunitarren ondorengoak zirala erakutsiz.

Harispe jeneral ori (1768-1855) Baigorri'ko semea zan. Gerra artan Auñamendi mendietan parte artu zuan. Ondoren, Europa'n barrena ibili zan Napoleon'en serbitzari. Baita España'n ere.

\* \* \*

Azkue'k bertso auen doiñua Lapurdi'ko Bardo ze'n jaso zuan. Ez du esaten noren aotik. Eta bere kanta-bilduman ere etzuan argitaratu. Aren esku-idatzietan arkitu degu. Ona emen:

La-pur-di, Ba-xe-na-barre,  
Zu-be-ro-a he-ie-kin  
ger-la-ra joan be-har gi-re  
gu-ziek el-ga-rre-kin.  
Bun-bak e-ta ba-lak  
xi-ru-lak ka-noi-ak  
ha-rre-kin e-gi-nen tu es -  
pa-ño-lak ka-brio-lak.

Argibide au ere ematen du: «*Lo cantaban los soldados de Harizpe*».

Bertso bakarra jaso zuan. Obeto esateko, leenengo bertsoaren aurreko erdia eta bigarrenaren atzeko erdia. Arritzeko ere ez da, bertso auek, irugarrena izan ezik, puntuak binaka baitituzte.

\* \* \*

Aita Donosti zanaren paperetan, *Cuaderno de Argentina* deritzaion batean eskuz idatzita, 1, 2 eta 3'garren bertsoak agertu dira, aldaketa auekin: 1/1:

gurekin; 1/2: gerlara; 1/2: elgarrekin; 1/3: Madrileko ondoraino; 1/4: kantatzen dularikan Bego frantsesa libro; 2/1: pestak; 2/3: bonbaz; 2/4: aire hortan aise egiten españolak karmañola; 3/2: elgarrekilan konpontziaz izanen die aski lan; 3/3: zeruan ere zer bizi modu behar da hoiien artian?; 3/4: frantses jaunak ez du nahiko español hoiien artian.

«ESKUALDUN XASURRETATIK...»

1/ Eskualdun xasurretatik  
 baginen iru batallun,  
 artu bear gintuela,  
*tun tun tuntuluntun,*  
 Irun eta Oiartzun,  
*tun tun eta beti tuntuluntun.*

2/ Gerla bear ginuela  
 aspaldi zuan ezagun,  
 itsaso bazter oitarik,  
*tun tun tuntuluntun,*  
 zonbeit peza tiro ilun,  
*tun tun eta beti tuntuluntun.*

The musical notation consists of three staves in G major. The first staff is in 3/8 time and contains the melody for the first line of lyrics. The second and third staves are in 6/8 time and contain the melody for the second and third lines of lyrics. The lyrics are written below the notes.

Es-kualdun xasurreta- tik  
 ba - gi-nen i- ru ba-ta- llun.  
 Ar - tu be-ar gin-tu - e - la.



Tun, tun, tuntun, tun tun...

I-run e - ta O-yar- tzun, tun, tun,

e- ta be- ti tun-tu-lun- tun.

Bertso eta doiñu auek, Aita Donosti zanak Sara'n jaso zituan 1931'ko Otsaillaren 25'ean, eta *Gure Herria* aldizkarian argitara eman, urte bereko Maiaz-Ekainaren zenbakian.

Aurreko saillean aitaturako «Eiztariak» izeneko euskal soldaduak ditugu «xasur» oiek. Frantzeseraz *chasseur* esaten baita. *Guerra de la Convención* dalako ortan jarritako bertsoak dira, beraz.

Bigarren bertsoak, Irun eta Oiartzun artu bear dituztela dio. Artu ere egin zituzten, 1794'ko Abuztuaren 1'an Irun, eta biaramonean Oiartzun. Egun oiek baiño leenagoko bertsoak, beraz.

## DEIA

«Klaudius Anna, Marques de San Simon, Espainiako lehen graduko haundia, Espainiako eta Frantziako Armadetako Mariskala, eta Doni Juane Garaziko Gobernadorea beherian sinatua:

Lebiatzen da jakin araztera frantzes hun guzier, zein-nahi kondizionetako izan diton, Errelijione Katoliko, Apostoliko eta Erromanoari, eta denbora berian Erregetasunari, ohoiari eta bere obligazionari estekatuiak direner, Errege Espainiakuak ordre eman daukula altxa dezagun Lejione edo tropa frantzes bat, zeintan errezibituiak izanen baitira frantzes, erresuma huntara pasatuiak edo pasatuko direnak eta untsa pensatzen dutenak, zoinak Majestate Katoliko horrek oraidanik hartzen baititu bere zerbitzuian eta bere protezioaren azpian eta bere pagan.

Don Ventura de Caro, Nafarroako eta Gipuzkoako Exerzitoan Kapitan Jenerala eta Komandanteak, eman du ordre posta abantzatu guzier, errezibiditzaten Frantziatik jiten diren guziak, zeini emanen baizezte pasaportak heltzeko hirira, zeintan biltzen baita erran den Lejionea, edo hau kausitzen den lekura.

Pasatzen direnek, Serbizioko util direnek ekar ahal ditzaketen harmak, harnesak edo zamariak, izanen zezte bereala dirutan pagatuiak.

Posible izanen den bezanbat, tropa izanen da partitua Probintziaka, eta Soldaduek eta Ofiziarrek elgar endelga ahal dezaketen gisan, eta partikularki eskualdunak izanen dira elgarrekin. Bertze alde, soldaduak ez dira izanen obligatuiak zerbitzatzera, ordre huna eta trunkilitatia Frantzian jar artio baizik.

Emana Auritzen, armadako Kartier jeneralian, Ekainaren seigarrenian 1793.

*Con licencia en Pamplona: Por Benito Cosculluela.»*

\* \* \*

Dei au, Fausto Arozena zanak nunbait ere arkitu zuan, eta Luis Mitxelena zanaren eskuetan jarri. Onek *Egan* aldizkarian argitaratu zuan, 1967 urtean, 1-6 zenbakian.

Deia iru izkuntzetan dago: gazteleraz, euskeraz eta frantzesez.

Mitxelena'k onela dio aurretik:

«...*Paix aux peuples, guerre aux tyrans* edo antzeko zerbait zioten ezker, premiazko zuten (Frantzia'ko iraultza-zaleak) gerra bizian sartzen ziren erriei adieraztea gerra ura, besterik bazirudien ere, ez zela aien kontrakoa, andikien aurka egiña baizik. Eta bearrezko zitzaien orretarako, nai-ta-ez, erriak zekian izkuntzan mintzatzeta, ots, erri bakoitzaren izkuntzan. Eta orrexek beartu zituen andikiak ere, emen bezala, erri izkuntza erabiltzera, besteren deia dei ozenagoaz ixilarazteko».

Iraultzaleen euskerazko dei oien mordo bat, *Piè-*

*ces Historiques de la période révolutionnaire* (Baiona, 1875) liburuxkan arkituko du irakurleak. Ez ditugu onera aldatzen, gure asmoa batik-bat garai artako bertsoak agertzea dalako.

\* \* \*

Dei au kondaira aldetik pixka bat argitzeko, txeeetasun batzuk eman genezazke.

Frantzia'ko Iraultza 1789'an asi zan ezkeroztik, nagusi berriekin konforme etzeuden frantzes askok, atzerrira alde egin zuten. Dei onek, ain zuzen, Auritz'en izenpetuta badago ere, mugaz Iparraldeko euskera du, guk uste. Andik iges egindako apaizaren batek-edo euskeratuko zuan.

1793'ko Martxoaren 7'an gerra deklaratu zion Frantzia'k Espaiña'ri. Onek iru gudarozte prestatu zituan: bat, Kataluña'n; bestea, Aragoi aldean; eta irugarrena, Naparroa eta Gipuzkoa'n.

Onen buruzagia, Ventura Caro zan. Beraren ize-na, or goiko dei orrek ere aitatzten du. Jeneral onek, gerraren leenengo urtean, 1793'an, aurrera jo zuan, mugaz Ipar aldeko zenbait erri eta eremu artuz. 1794'eko Ekainean, berak eskatzen zituan ainbat gizon eta arma Madrid'ko gobernuak bialtzen etzizkiola-ta, bere buruzagitza utzi egin zuan.

Urte artako Uztailean, ain zuzen, frantzesak eraso jo eta Naparroa'ko zati aundi bat ez-ezik, Donostia eta Tolosa'z ere jabetu ziran; 1795'ean, berriz, Bilbao, Gasteiz eta Miranda artzeraiño aurreratu. Eta orduan pakea egin.

Dei ori izenpetzen duan *marqués de San Simón* orrezaz, onela dio Florencio Idoate'k, bere *Guerra*

*contra la Convención liburuxkan, Navarra, Temas de Cultura Popular* saillaren 106 zenbakian:

«Capítulo importante es el de los franceses refugiados en Navarra, bastante numerosos, hasta el punto de llegarse a formar la llamada Legión Real, a las órdenes del aristócrata duque de Saint-Simon».

Deiak, esan degunez, markesa esaten dio. Andik puska batera onela dio Idoate jaunak:

«... se forma la citada Legión Real con oficiales aristócratas, como el marqués de Buzols, el conde de Bissy, el vizconde de Charrette y otros. Su bautismo de fuego tuvo lugar en la gloriosa conquista de Castillo del Peñón o Château-Pignon en 6 de junio de 1793».

Eta aurreraxeago:

«Ya hemos hablado anteriormente de Saint-Simón, el jefe de la Legión Real, que llega a alistar unos 500 exiliados. Su día glorioso, y a la vez desdichado, fue el 10 de julio de 1794, en que mueren 200 de ellos, aunque sobrevive su jefe».

Onenbesterekin garbi dago San Simon orrek zer nai zuan eta zertan ari zan. Frantziaren inguruko erreinuetan ere gauza bera izango zan noski...

## «GERLARA ETORRI GINEAN...»

Gerlara etorri ginean  
gure bizien perillean.  
Gure agintariak frantzes:  
«*Allons, chasseurs, avancez!*»  
Guk euskara erantzutea:  
«*Diabriak eraman bazinzez!*»

Biba Nafarroa'ko  
bolontarioak,  
Asanblean dezuiez  
kontrarioak;  
egin zaizue gerla  
biotzez ta gogotik,  
gu ere elduen gera  
zuen ondorendik.

Astobizkar mendi  
mendi famoso,  
españiarra an dago  
beti sendo-sendo;  
frantzes a joaiten bada  
geldi eta manso,  
koko ezur handiak  
etorriko franko.

Otsondo'ko mendian:  
«Nor bizi? Nor bizi?»  
Ustez Asanblearen  
joan ziren ihesi;  
mutuia izan eta  
itz bat ez bihurtu,  
Urdatxuri aldeko  
behorrak izutu.

Eguberri-eguna  
eguna bai triste,  
ez genduen guk beintzat  
alakorik uste;  
mezaren entzuteko  
libertade gabe,  
fusilak arturikan  
zentinelan daude.

Bertso aukeratuak, Juan Antonio Mogel'ek bere *Peru Abarka* liburuan argitaratu zituan, seigarren autuan.

Maixu Juan, Peru Abar, Joanis prantzesa ta Txor-gori giputza bildu dira, ta alkar-izketa au darabilkite Maixu Juan eta Joanis'en artean, 1881 urteko argitaraldiari kopiatuta:

«M. J.: Joanis, parkatu, baiña jakin gura neuke ze erritakua zarian Prantzijan.

B.: Ni naz baigorritarra: erri tipi batekoa.

M. J.: Etzara gerraan ibilli igaro dirian urteetan? Baigorrikuak ots egiten ebeen, ta eukeezan gaiztotzat.

B.: Gerla zer dan ez dut jakin. Ihes egin nuen handik, ta ebildu naz Españako iri eskualdunetan nola ala, ezkutuz edo ageriz. Beldur izigarrietan irago nituen asko egun. Maiz bihi-llatua izandu nintzan prantzes izena gatik. Behein baño gehiagotan egin nuen lo basoan bizkaitarren beldurrez. Prantziara ez nuen joan nai, gerlara eramana izan ez nindin. Zorionez bukatu zan gerla gaizto ura; ez dakit nola bizi az irten nintzan. Frantzian ta Españan, Baigorri ta Bizkaian, nor nai ardiak ta

ahuntzak, arkume ta ahuntxumeak, onak eta gaiztoak. Baziren Baigorri ezin bestez, edo indar utsez ta portxaz, gerlara zijoazenak. Nai duzu entzun urte txar aietako Baigorritarren kanta soñuekin lagundua? Ona emen:

Ondoren bertsoak eskeintzen ditu, eta urrena onela jarraitzen du:

«Onla itz egiten zutenak, etziren, ez, bihotz gogorren jabeak. Nahiagoko zuten beren etxeetan lantzan hari, ezen ez gerlan Españiarren odola isurtzen. Nola-nahi, orain adiskide gera».

Juan Antonio Mogel, 1745 urtean jaio zan, eta 1804'ean il. *Guerra de la Convención* (1792-1795) dalakoa da, beraz, bertsoak aitatzen dutena; *Chasseurs Basques* edo «eskualdun ihiztariak» izeneko taldeetan Bidasoa'z Iparraldeko euskaldunak parte artu zutena. Berriz ere adiskide ziran Frantzia eta Espaiña, ez luzarorako baiña.

Haristoy apez jaunak, bere *Les Paroisses du Pays Basque pendant le période révolutionnaire* liburuan (Paben, 1855) kontatzen duanez, eta leen ere aitatu degunez, Itsasu'ko berrogei ta zazpi soldaduk, boluntarioak gainera, desertatu eta iges egin zuten. Baditeke bigarren bertsoak desertore oiek kontuan eukitzea. Alegia, Frantziako Asanblean bazirala arrazoi orrengatik Eskualdun Ihiztariak begitan artuta zituztenak.

Ez baitziran itsasuarrak bakarrik izango. Arri-tzeko ere ez da. Orduko euskaldunak, oso fedetsuak eta errege-zaleak izanik, Iraultzaren kontrakoak ziran geienak. Bosgarren bertsoan, Eguberri-egunean meza entzuteko libertaderik etzutela izan esaten digu bertsolariak. Eta motibo berezirik gabe, gerrari iges egitearren bakarrik, jende askok igaro du muga, Frantzi'ko gerretan iparretik egora, eta Espaiña'koe-tan egotik iparrera.



Olakoak ezagutuko zituan Mogel'ek, bat baiño geiago gaiñera ziur asko, eta oiengandik jasoko zituan bai bertsoak eta bai beren egoera errukigarriaren berri, gero bata eta bestea Joanis baigorriaren aotan ipintzeko.

Bertsoetan iru toki aitatzen dira: Astobizkar, Otsondo eta Urdatxuri. Astobizkar, Orreaga eta Ibañeta gaiñean dagoan mendi bat da. Otsondo, berriz, Amaiur eta Urdazubi artean dagoan mendi-lepo edo mendi-atea. Eta Urdatxuri, bearbada, Urdazubi izango da, erderaz Urdax esaten zaion erriaren izena. Irurak ere mugatik urbil daude. *Guerra de la Convención* dalako ori mugitu zan tokiak, alegia.

\* \* \*

Aita Lino Akesolo'k leenengo eta azken bertsoak azaltzen ditu bere *Bertsolaritza Pernando Amezketarren garaian* idazlanean (*Egan*, 1969, VI-XII), Moguel'en *Peru Abarka* liburutik artuta.

«FRUITIDORREN HOGEI TA  
LAUGARRENIAN...»

Fruitidorren hogei ta laugarrenian,  
Erroimendi'ko bortian,  
xaseurrek eta grenadierrek  
projeta hartu günian  
etsaiaren atakatzeko  
biharamon-goizian.

The musical score is written in G major (one sharp) and 2/4 time. It consists of four staves of music. The lyrics are written below the notes.

Fru-i-ti-doren ho-gei ta bat ga-  
r-re-ne-an E-roi mendiko gai-ne -  
an cha-seurrek e-ta grana-die-rek  
pro-fe-taar-tu gu-ne-an



Bertso au Azkue'k bere kanta-bilduman argitaratu zuan, 48 zenbakian, argibide auek emanaz:

«De J. Bedekaratz, de Atharratze (S).

*La letra con que me la cantó es una narración bélica del tiempo de Napoleón I... Iban mandados por el que luego había de ser mariscal Harizpe, hijo de Baigorri. El comandante de los suletinos era Musde Arranpe, hijo de Atharratze.»*

Kanta ori ez da Napoleon agintean zan denborakoa, leenagokoa baizik, *guerra de la Convención* izenekoaren garaikoa (1793-1795).

Harizpe, *eskualdun ihiztariak* izeneko taldeen buruzagietako bat zan, eta bere gaiñetik Delaborde eta Moncey jeneralak zituan.

Azkue'k kanta oni *narración bélica* deitzen dio. Bertso ontan esaten dana naikoa al da *narración* itza erabiltzeko? Eta xuberotarren buruzagia Atarratze'ko Arranpe zala nundik ikasi ote zuan? Kondaira-liburuetatik nekez, ez baitzitan arek, erriaren aotik biltzen zituan kantak zirala-ta, eskuetan artu eta aztertzen. Bearbada, Atarratze'ko J. Bedekaratz orrek bertso geiago kantatuko zizkion, baiña Azkue'k aintzakotzat artu ez. Doñua ere ez baitzuan bere letrarekin argitaratu, beste batekin baizik.

Doñuari buruz oar au egiten du: «*Como el primer verso del poemita narrativo era desmesuradamente largo, el cantor hubo de alterar el ritmo inicial de la melodía*».

Guk bere esku-idatzietatik kopiau degu doiñua.

Azkue'k, bere kanta-bilduman, bigarren lerroa «Erroimendiko bortian» idazten du. Bere esku-idatzietan, berriz, «Erroimendiko gainean».

Aita Akesolo'k ere argitaratu zuan bertso au, bere *Bertsolaritza Fernando Amezketarraren garaian* idaz-lanean (Egan, 1969, VII-XII).

\* \* \*

Erroimendi'ko bortu edo gain ori mendi-lepo bat degu. Xuberoa'n da, Ori mendiko egal batean, iparraldeko ixurian. Gaur Otxagi'tik Larrañ'era dijoan kamioa, lepo ortatik igarotzen da.

1794'eko *Fruitidor* ille ortan, frantzesak, Moncey jeneralaren agindupean, eraso aundi bat jo zuten espainolen aurka. Onela dio Pascual Madoz'ek bere *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar* izeneko iztegian, XII'garren alean, *Navarra* itzari buruz, kondaira-saillean:

«Reemplazó el general Moncey a Muller y como si no fueran bastantes las tropas que tenían operando en el país, todavía recibieron un refuerzo de quince batallones. Con este motivo trató Moncey de copar una columna de 12.000 españoles que había en Roncesvalles: para ello dispuso que 14.000 hombres, partiendo de Elizondo y San Esteban se reuniesen en Lanz, de donde, marchando a la izq., habían de tomar el punto de Burguete, y comunicándose con otra columna de 6.000 hombres formada en Tardets, flanquearían las montañas de Erroimendi y de Larraun<sup>1</sup> atravesando el pueblo de Ochagavía, valle de Salazar, hasta Villanueva; de modo que por este movimiento circular, las tropas españolas del valle de Roncesvalles, deteni-

---

1. Larrau esan bearko luke. Larrañ euskeraz.

das en su retirada, observadas, seguidas incesantemente y combatidas de frente por la división de San Juan de Pie del Puerto, debían ser rodeadas y forzadas a entregarse. Sin embargo, este plan tan bien concebido fracasó: los españoles pelearon con heroicidad en cuantas partes se ofreció la batalla; disputaron a palmas el terreno que pisaban, y el resultado de aquella expedición, en que las fuerzas republicanas eran duples a las españolas, fue perder estos últimos sobre 1.500 hombres entre muertos, heridos y prisioneros, habiendo tenido el ejército francés unas 600 bajas».

M. Albert Dutey-Harispe'k bere *Le Maréchal Harispe* itzaldian<sup>2</sup> dionez, frantzesen eskubiko egale-tan ziranai, «*colonne infernale*» deitzen omen zieten eta amabi milla omen ziran, Delaborde jeneralaren agindupean. Aien artean ziran Harispe eta bere mutillak.

Españolak atzeratu eta frantzesak Biskarret'era-ño iritxi ziranean, Delaborde orrek, bere gizonei atsedean ematearren, eraso geratzeko agindu omen zuan. Harispe'k-eta aurrera jarraitzea eskatu zioten, Auritz (Burguete) artzeko, erri ontaz jabetuta, Orreaga aldean-eta zeuden espainolak nundik alde egin etzutela izango-ta. Baiña Delaborde'k ezetz eta iges-bide ori zabalik gelditu zan.

Oiek danak *Fruitidor* illabetean gertatu omen ziran, bertsoak ere adierazten duanez. Onek, ordea, illak zenbat zuan ere esaten du: 24'garrena; eta biaramona, eraso jo zuten eguna. Egun oiek, *Espasa* iztegiak adierazten duanez, Iraillaren 10 eta 11'garrena dira.

---

2. Itzaldi ori Donibane-Lohizune'n eman zuan, 1897'ko Euskal Biltzarrean, eta 1899'an argitaratu zan, *La Tradition au Pays Basque* liburuan.

**«BERRIA DUT ADITU...»**

1/ Berria dut aditu  
behar girela sanjatu,  
itsasora partitu.  
Portu hoitarik behar dugu  
Espainia oro hartu,  
urria multzora bildu,  
zilarra ere bai urtu,  
serorak illotinatatu.

2/ Sankulotak lehenik  
joan ziran banderatik  
etsaiaren ondotik.  
Gero joan behar gira  
gure musketak harturik,  
baionetak sarturik,  
sabriak zorrozturik,  
eginen tiagu erditik.

- 3/ Banderak usu-usia,  
fama handiko tokia,  
debruez poseditia.<sup>1</sup>  
Hiriak behar luke  
jatsaz ongi xahutu,  
sabriaz karrakatu,  
bolboraz isentsatu,  
artilleriaz porroskatu.
- 4/ Bordele'ko hiria.  
hiri eder famatia,  
agradamentuz betia.  
Gu eskualdun xasurrentzat  
kontra da hango airia:  
buruko min bat bil eta  
segur ospitalia,  
han xangrinetan hiltzia.
- 5/ Eskualdunen herriak,  
herri maitagarriak,  
Jainkoaz benedikatiak.  
Noizik behin jakiten tiguk  
gure maiteñoen berriak:  
heien sentimenduak  
ez direla ganbiatuak,  
gaudela seguratuak.

Bost bertso auek *Herria* astekarian agertu ziran,

---

1. *Herria* astekariak *poseditua* idazten du. Gramatikaz ala bear du noski. Baiña baxenabarrez *poseditia* esaten baita, eta punturako ere orrela bear baitu, alaxe jarri degu guk.

Berdin egin degu 4/2 eta 5/3 lerroetan ere, *famatua* eta *benedikatuak* esaten baitzuan.

1962'ko Maiatzaren 3'an, «Bertsu zaharrak» zirala beste argibiderik gabe. Baiña ziur asko Lafitte zanak ager araziak.

Noizkoak, ordea? Galdera orri erantzuteko, bertsoak berak ematen dituzte bideak.

Leenengoak dionez, Espaiñiaren aurka gerran ari dira. Zeintzuk? Bidasoa'z Ipar aldeko bertsoak izanik, erreza da galdera orri erantzutea: frantzesak. Frantzia'k, berriz, bi gerra izan zituan garai aietan Espaiña'rekin: erderaz *Guerra de la Convención* deritzaiona (1792-1795) eta Frantzestea (1808-1814).

Gerra oietako bat berezi bear, beraz. Orretarako bi bide ditugu. Bata, bigarren bertsoan, *sankulotak* aitatzen diranean; *sans-culottes* frantzeseraz. Orixe izan zan 1789'an aundikiak iraultzaleei jarri zieten izengoitia, leen ere esan degunez.

Bigarren bidea laugarren bertsoak ematen digu, «eskualdun xasurrak» aitatzen dituan ortan. Aurreko sail batean argitu degu oiek zer ziran: Harispe baigorriar jeneralaren agindupean gerra ortan ibili ziran euskaldun soldaduak, Bidasoa'z Ipar aldekoak noski.

Irugarren bertsoa iri baten aurka ari da. Baiña zein iri dan ez du esaten. Bearbada, irugarren eta laugarren bertsoak lekuz aldatuak daude, Ala balitz, iri ori Bordele litzake.

\* \* \*

Sail onek eta «Vandea-ko partia» itzekin asten danak, badute alkarrekin zer ikusirik. Emengo laugarren bertsoaren erdia eta ango zortzigarren zenbakiarekin dagoan bertsoaren erdia, berdintsuak dira. Eta emengo leenengo bertsoa eta ango azkena ere berdintsuak.



Bi bertso auek alkarren esanaia argitzen dute. Ala, emengo leenengo bertsoaren irugarren lerroa, «itsasora partitu» dio ortan, «Itsasu'ra partitu» bear-ko luke. Erria baita. Laugarren lerroan, «portu hoi-tarik» esaten duan ortan, itsas-bazterreko portuak ez dira, mendi-portuak baizik. Eta zortzigarren lerroan, an *señorak* esaten zan, eta emen *serorak*. Gure iri-tzirako, onela izango da zuzenena.

## «GURE ONTZIAREN IZENA...»

1/ Gure ontziaren izena  
*Borderra* deitzen da,  
harek baditu ehun eta  
hamar peza berekila,  
harek ezpeitu hanbat  
anglesaren axola.

2/ Partitu ginanean  
Tolona hirian,  
inkietatu izan ginan  
mare batekilan,  
gure marinela ere  
tristerik hargatikan.

Gure on-tzi-a-ren i-ze-na Bor-  
de - na dei-tzen da ha-rek ba-  
di - tu e -hun e - ta ha-mar pe-

The image shows three staves of musical notation in G major (one sharp) and 3/8 time. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 3/8 time signature. The melody consists of eighth and sixteenth notes. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across notes. The lyrics are: 'Gure on-tzi-a-ren i-ze-na Bor-de - na dei-tzen da ha-rek ba-di - tu e -hun e - ta ha-mar pe-'. The second and third staves continue the melody and lyrics.



Bi bertso auek, beren doiñuarekin, Azkue'ren esku-idatzietan azaldu dira. Ez baitzituan bere kantabilduman argitaratu. Nori jaso zizkion ere ez du adierazten. Onela dio: «*Canción narrativa de... (S)*».

Noizkoak ote ditugu? Galdera orri erantzuteko, ontziaren izenak laguntza pixka bat eman lezake berarbada. Baiña guregana xuxen iritxi dan ez dakigunez, ezin degu ezertarako oiñarriztat artu.

Baiña beste bi bide dauzkagu: erriaren izena, «Tolona hiria» edo Toulon, eta inglesen aitamena.

Toulon itxas-portua Mediterraneo'n dago, Marsella'tik urruti gabe. Bertako biztanleak, Frantzia'ko Iraultzearekin izuturik, beren iriko ateak ingleseiei eta españolei zabaldu zizkieten 1793 urtean.

Iraultzaleak iria inguratu egin zuten orduan. Baiña gerrarako ondo prestatua baitzegoan, eta ingeles eta español gerra-ontziak ere antxe baitzeuden, oso ezur gogorra gertatu zitzaien eta denbora aurrera zijoan, artaz ezin jabeturik.

Alako batean, ogei ta iru urteko kapitan gaxte-argal bat etorri zan. Aretxek esan nundik eta nola eraso bear zan. Baita danak aren aginduetara jarri eta iria artu ere, 1794'ko Abenduaren 18'an. Napole-on Bonaparte zan kapitan ura.

## XORTEKO KANTU XAHARRA

- 1/ Goazen, goazen armadara!  
Gu girade gazten floria!  
Xortiak tiratu,  
ez untsa gertatu,  
guk behar partitu,  
gure goait daudela bi mila irrisku,  
bi mila irrisku!
- 2/ - Adio, aita; adio, ama!  
- Adio, seme gaixo maitia!  
Nik ttipi-ttipitik  
hazi hut gogotik.  
Zer behauk orai hik:  
bestentzat nunbeit hil, handituz geroztik,  
handituz geroztik?
- 3/ Ene pena, partitzian,  
izar baten bihotz tendria!  
Hanbat nu maitatu,  
hanbat estimatu;  
nolaz bada eztu  
ni joaitian behar nigarretan urtu,  
nigarretan urtu?

- 4/ Hasi orduko negua,  
han gitazke itsas-haindian!  
Prusiano, Angles,  
Español, Holandres,  
leherra etsaiez...  
Kanoiak banbaka, oi behar ederrez,  
oi behar ederrez!
- 5/ Orroit gutaz, sort-herriko  
izar pullit maitagarriak!  
Gerlak ez bagitu  
nahi lurperatu,  
zazpi urten buru  
nahiko duzue gurekin ezkondu,  
gurekin ezkondu!

Bost bertso auek *Herria* astekarian agertu ziran, or goiko izenburu orrekin, 1962'ko Abuztuaren 2'an.

Frantzia gerran ari da eta Bidasoa'z Iparraldeko mutillak arma artu bear. Partitzerakoan, aietako batek -aren izenik ez dakigu- bertso auek jartzen ditu.

Zein gerra dan jakiteko, laugarren bertsoak ematen digu bidea, etsaiak izendatzen dituan ortan: prusiano, angles, español ta holandres. Nazio oiek, eta bai Austria'k ere, danak alkar artuta, *Guerra de la Convención* ontan (1792-1795) eraso zioten Frantzia'ri.

Gerra ori legorretik egin zan batik-bat. Baiña bai itxasotik ere. Inglesak, izan ere, frantzes kolonia geienez jabetu ziran, naiz-eta Frantzia'k eusten alegiñak egin. Mutillak «negua hasi orduko, itsas-haindian» izan ditezkeela esaten du laugarren bertsoak. Kolonietan, alegia, inglesen aurka.

\* \* \*

Bertso auek 1968'ko *Gure Almanaka* urtekarian

ere agertu ziran, izenburu berarekin eta firmaren tokian onela diola: »X.X.X. (1891-ko kopiatik.)»

Aldaketak ere baditu: 1/4: ontsa; 1/6: beharrikan ere bizia funditu; 1/7: bizia funditu; 2/5: Zer behar duk ba hik; 4/1: Negua hasi orduko; 4/6: bolbora zartaka, oi behar ederrez.

\* \* \*

Aita Jorje Riezu'k, bere *Nafarroa-ko euskal kantu zaharrak* liburuan, sail ontako lau bertso ditu. Laugarrena falta. Beste lauetan, itz guztiak 1968'ko *Gure Almanaka*'n bezela, batere aldaketarik gabe. Eta doiñua ere azaltzen du:

Goa-zen, goazen armada - ra

Gu gi-ra- de gaz-ten flo-ri- a.

Xor-ti-ak ti-ra- tu, ez un-tsa

ger-ta- tu! Guk behar parti - tu, be-

ha-rrikan e- re bi-zi- a fun- di-

tu, bi -zi - a fun - di - tu.

## «INGLES KRUBEL BARBARUAK...»

Ingles krubel barbaruak  
utzi gaitu peritzera.  
Zertan eman etziguten  
gerlako arrantxua jatera,  
.....  
laja gabe peritzera?

Bertso bakar au Azkue'ren esku-idatzietatik de-  
gu. Baiña etzuan bere kanta-bilduman argitara  
eman.

Asieran onela esaten du: «*Canción narrativa de  
Ondarribia (G)*».

Bertso au noizkoa dan somatzeko, gauza bat ja-  
kin bear genduke leenengo, *gerla* aitatzen dan ezker-  
o eta prisionero batek moldatua dalako itxurak dira-  
nez: Bidasoa'z Iparraldean edo Egoaldean jarria  
dan. Ondarrabia'n jaso izanik, beste aldekoa ere  
izan baititeke.

Ipar aldekoa balitz, Ingalterra eta Frantzia al-  
karrekin gerran ziran denboretakoa izango da. Eta bi  
nazio oiek ia etzuten pake-unerik izan 1793 urtetik  
1815 urtera.

Ego aldekoa balitz, berriz, Ingalterra eta Espai-

ña gerran zebiltzan garaietako bear du. Ori 1805 urtean gertatu zan, Frantzia eta Espaiña adiskide ziralarik, itxasoan Finisterre eta Trafalgar'ko burrukak gertatu ziranean.

Ala ere, *gerla* eta *peritzera* Bidasoa'z Ipar aldeko itzak baitira, bertso au angoa izateak itxura geiago duala esango genduke. Eta, orrela izanik, ogei ta iru urteko tarte zabala genduke bertso auen sorrera kokatzeko.



## VILLANCICOS EN ROMANCE Y BASCUENCE

*que se han de cantar en la iglesia parroquial y matriz del Señor Santiago de esta noble villa de Bilbao, en los solemnes Maytines del Sagrado Nacimiento de nuestro Señor Jesu-Cristo, este año de 1794.*

*Puesto en música por Don Pedro de Estorqui, Maestro de capilla en dicha Iglesia, y Opositor a Magisterios de Capilla en Santas Iglesias de término.*

*En Bilbao: Por Simón de Larumbe, Impresor del M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya.*

### ZORTZIKUA

- 1/ Urte guzijetako  
Gabongo legia  
da soñu eder baten  
kantia imintia;  
etxako ukatuko  
sari au Jesusi,  
jaio jakun ezkerero  
Belen'en gugaiti.

- 2/ Arerijo andi bi  
daukaguz zer goitu,  
gura bugu Seintxuba  
Erregetzat artu:  
gerragiñak daukaguz  
gorputz ta ariman,  
alan pasiño e txar  
zelan frantzesetan.
- 3/ Arerijo onen kontra  
nai bogu irabazi  
bitorija andi bat,  
jarraitu Jesusi;  
arkituko ditugu  
armaak aska baten,  
fedeko farolagaz  
boguz billatuten.
- 4/ Jesus etorri orduko  
lurra dago ixilik,  
gerrako arma guztijak  
albora itxirik;  
Bakezko Erregia  
jaku izentetan  
Judia'ko Leoia  
egun barrijetan.
- 5/ Ejerzituben Jauna  
bildots bat eginik,  
infernuko dragoia  
isteko goiturik;  
bere odolak dauka  
birtute andija,  
gutziz desegitko  
gerragin gutzija.

- 6/ Bijotz azkor ta andi  
prestuben jaubiak,  
entzun nortzuk benetan  
dirian nobliak:  
euren buruen jaube  
biarko dabe izan,  
ikusirik Seintxuba  
zelan kuman datzan.
- 7/ Gure fediak daukaz  
arma ugarijak  
ezi ta bezeetako  
pasiño guztijak;  
alan eukiko dogu  
barruban bakia,  
kanpoti eukiarren  
urrian gerria.
- 8/ Nok, ondo ikusi ezkeru  
Jesus beeraturik,  
naiko dau erabilli  
buruba arroturik?  
Daukagu ikastegi  
ederra Belen'en,  
fedeko eguakaz  
guazan gu lenbailen.
- 9/ Baña ezta aztutekua  
frantzesen gerria,  
galduba izan eztedin  
daukagun fedia;  
beintzat gomutan dauka  
Bilbo'ko urijak,  
lagunduten deutsela  
bizkaitar guztijak.

- 10/ Bakotxak egiten dau  
emen al dabena,  
jakinik dala gerra  
Jaunak nai dabena;  
fraile ta abadiak  
besteekaz batera  
jagi dira pozarren  
armak artutera.
- 11/ Señorijo, Konsulau  
ta Urija alkaturik,  
aberatsak izanda  
dagoz pobreturik,  
emoten ditubela  
ondasun andijak,  
gordetarren errege,  
fede ta errijak.
- 12/ Jainkuak nai dajala  
orain bedeinkatu  
bizkaitarren goguak,  
eta alan lagundu,  
esturasun onetan  
ondo urtetako,  
bakia zabaldurik  
Jesus ametako.

Bertso auek paperetan inprentatu eta zabaldu ziran. Guk ez degu olako paperik inun arkitu. Baiña *Amantzi* izenordez izenpetzen duan batek, Bilbo'ko *Euzkadi* egunkarian ostera plazaratu zituan, 1919'ko Ilbeltzaren 14'ean, aurretik onela esanez:

«*Villancicos en romance y vascuence en Santiago de Bilbao, puestos en Música por Don Pedro Estorqui. En Bilbao, por Simón de Larumbe, 1794*».

Adierazpen au, guk or goian ezarri deguna baiño

laburragoa da. Gure ori nundik atera degun, geroxe-ago esango degu.

Bertsoen ondotik, ergelkeri au idatzi zuan *Aman-tzi* dalako orrek:

«Non ete bertso onein abestija? Bertsuak baño obia ezpada, ez da ardurarik galdu arren.»

*Aranzazu* illerokoan, 1975'eko Abenduan, berriz ere argitara atera ziran bertso auek, *Villancicos en vasco bizcaino del año 1794* izenburuarekin. Urrena, berriz, erderazko oar luze bat:

*«Entre los textos raros o pocos conocidos que han figurado en la Exposición Tipográfica Vasco-Navarra instalada este año en el claustro del Santuario de Aránzazu, podía verse un pliego impreso de 8 páginas, que contenía villancicos en castellano y vascuence, cantados en Bilbao en la Navidad de 1794.*

*Reproducimos la portada del dicho pliego y la letra del villancico vasco, modernizando la ortografía de éste, pero respetando sus particularidades dialectales.*

*Sabido es que ese año de 1794 hubo guerra entre España y la recién instalada República Francesa. En el villancico hay referencias a esta guerra.»*

Ondoren, kanta-paperaren asiera dakar, saillaren buruan ezarri degun adierazpen luze ori alegia, *Amantzi* dalako orrek laburtu-edo egin zuana. Eta, azkenik, bertsoak. Baiña erderazkoak baztertu eta euskerazkoak bakarrik. Gure iritzirako, biak ezarrita obe litzake. Baiña, damurik, guk ez degu bertso-papera iñun arkitu, eta utsune ori ezin bete.

Dakigunez, gerra ori erderaz *guerra de la Convención* esaten zaiona da. Bertso auek jarri eta argitaratu ziranean, 1794'eko abenduan alegia, fran-tzesak Donostia eta Tolosa'z jabetu eta Deba ibairai-ño etorriak ziran. Zazpigarren bertsoak dionez,

«urrian gerria» zuten, beraz, bizkaitarrak. Auek, amaikagarren bertsoak esaten digunez, gogotik saiatu ziran diruz eta gizonez. Frantzesak, ala ere, urren-go urtean osterara eraso eta Bilbo'n ere sartuko ziran, uztaillaren 19'an ain zuzen, eta Gasteiz eta Miranda-raiño iritxi ere bai. Andik bereala egingo zan pakea, 1795'eko Uztaillaren 22'an, *Paz de Basilea* deitzen dana.

\* \* \*

Aita Lino Akesolo'k, bere *Bertsolaritza Pernaldo Amezketarraren garaian* idazlanean (Egan, 1969, VII-XII), bertso auetako 9 eta 10'garren bertsoak azaltzen ditu.

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	7
FRANZIA'KO IRAULTZA BERTSOTAN	11
Frantziako erreboluzioea .....	13
Garat gaztenaren eta Iturbidentzat .....	33
Ihardestea .....	39
Erromako gortetik .....	41
Mentaberri'ren posesionetan sartzearen okasionean .....	47
Bardotzen glub .....	51
Distrikerat .....	55
Eskandala .....	59
Madama Beltzunzeri .....	69
Nazioneko besta .....	73
Apez juratuak .....	79
Artzain ardi-jalea dantzari .....	85
Sarako ihesliarren kantua .....	93
Garatek erregeri hiltzeko arrasta irakurtu ondoan .....	105
«Apezak eta nobliak...» .....	107
Nahasmenduaren ondoan .....	111
Orroitzapenak .....	115
D'Estaing jaun kontearen laudorioak .....	121

«Vandea-ko partia...» .....	127
<b>KONBENTZIOKO GERRA BERTSOTAN</b>	133
«Lapurdi, Basa-Nafarre, Zuberoa gureki...»	135
«Eskualdun xasurretatik...» .....	141
Deia .....	143
«Gerlara etorri ginean...» .....	147
«Fruitidorren hogeitau laugarrenian...» .....	151
«Berria dut aditu...» .....	155
«Gure ontziaren izena...» .....	159
Xorteko kantu zaharra .....	161
«Ingles krubel barbaruak...» .....	165
<i>Villancicos en romance y bascuence</i> .....	167





1009651

BO-2990

AZKUE BIBLIOTEKA EUNIKETZINDIA BILBO
67633
1990 URR. 5
1009651



AUSPOA  
LIBURUTEGIA